

Berrigara

Jose Mari Zezeaga

Gizon trankila

**MECA
BERGARA**


Amillaga 5
BERGARA
943 76 40 68



Ezagutu ezazu
Mégane berria
MECA BERGARAn



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA



ESKAINZA BEREZIAK

Ibargarai, 16 - Tel. 943 761575 -
BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - Tel. 943 792995
ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp. - Tel. 943 889988
ORDIZIA

**Adi egon MULTIOPTICAS-en
hurrengo zozketari!!**



**VOLKSWAGEN
LUPO** kotxe
bat!!

Bai, zure
ikusmenak
ondo dio:
**VOLKSWAGEN
LUPO**
zoragarri bat!!



Txuringo Jatetxea



- ~Menua eta karta
- ~Ezkontzak
- ~Jaunartzeak
- ~Txerrikumea, bildotsa,
baserriko oilaskoa labean erreta...

OSINTXU. Tf. 943 76 48 63

Sinbolismo hutsetik haratz

Nora Palmitano / Irakaslea

U rte osoa, baina batez ere ekainaren hasieratik urriaren bukaera arte, asteburu guztiak euskara eta euskal kulturaren aldeko ekimenez beteak ditugu. Araba Euskaraz, Ibilaldia, Herri Urrats, Kilometroak, eta Nafarroa Oinez; Euskal Eskola Publikoaren eguna, AEK eguna, Egunkaria Eguna, Euskal Jaiak, UEMA Eguna, Korrika, maskaradak, pastoralak; hasi berria den Bertsolari Txapelketa Nagusia... Ziur nago bat baino gehiago gelditu zaidala aipatu gabe. Denak, salbuespenik gabe, arrakastatsuak. Euskaldun eta euskaltzale orok erantzuten dio euskara eta euskal kultura susperetzearen erantzukizunari.

Euskararen aldeko apostua egin dugu. Jaietara joatearekin ez gara konformatzen. Administrazioaren aurrean euskara exijitzen dugu: funtzionario euskaldunak, inprimaki eta idazki guztiak euskara elebakarrez; kalean ahal beste funtzionatzen dugu euskaraz.

Horraino heldu gara. Ez da gutxi. Ezta nahikoa ere.

Eman behar dugun hurrengo pausoa, aurreko borrokekin konparatuta ez da hain handia. Edo beharbada bai.

Esan dezakegu, gure eremu indibiduala, pertsonala euskaldundu dugula. Gure bizitzan aldatzerik genuena eus-

"Gure ingurunean ditugunak, ondo-ondoan ditugun horien ikaste-prozesuan parte hartu behar dugu.

Euskara jakitera heltzeko, eta jakitetik erabiltzera dagoen bideari ekiteko"

kaldundu dugula. Gure eremu soziala euskalduntzeko txanda heldu da. Gure eremu soziala inguruan eta gurekin bizi direnek (eta ez soilik etxean) osatzen dute.

Euskara ikasten ari den zenbat eza-gutzen dugu? Ulertzen dutenak baina hitz egiten ez dutenak, zenbat? Euskara erabiltzen hasteko gure laguntza behar dute. Zenbat, euskera ikasi beharko luketenak? Gure laguntzarik gabe ez dute egingo.

Gure ingurunean ditugunak, ondo-ondoan ditugun horien ikaste-prozesuan parte hartu behar dugu. Euskara jakitera heltzeko, eta jakitetik erabiltzera dagoen bideari ekiteko.

Euskal Herriaren euskalduntze prozesuan betebehar guztiei erantzun diegu. Eta erantzungo diegu datozen guztiei.

Ez dut pentsatzen erraza denik, zailgia ere ez. Eta horretarako gaitasuna ez zaigu falta. **B**

barruan



Xabier Tapia

Psikologo klinikoa

"Egoera soziala eta ekonomia direla eta, gazteek ez dute lehen adinako ilusiorik"

8.



Gorka Fernandez

Piraguista

"Slaloma da gehien gustatzen zaidana, teknika koordinatzea zaila izan arren"

21.



Teo Delgado

Jubilatua

"Kantautoreak ditut gustoko: Serrat, Victor Manuel, Victor Jara, Benito Lertxundi..."

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1677. Martxoaren 20an udaletxe berria (gaur egunekoa) eraikitzeko eskritura sinatu zen Lucas de Longa arkitektoarekin. Garai hartan Gipuzkoan zegoen arkitekto garrantzitsuena zen. Zenbait arazorengatik, obrak ez ziren 1693ra arte amaitu.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1443. Martxoaren 13an oñaztarren buru zen Butrongo jauna eta ganboatarren Martin Ganboaren arteko bakea sinatu zen.

1622. Martxoaren 10ean Gregorio XVI.ak Loiolako Iñigo eta Xabierreko Frantzisko kanonizatu zituen. Bi egun geroago, Pablo V.ak santu izendatu zituen biak.

1992. Martxoaren 11n Rafael Ruiz Balerdi pintore ospetsua hil zen.

MUNDUAN GERTATUA

1796. Martxoaren 9an Napoleon Bonaparte Joséfina Tascher-ekin ezkondu zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 5

4-15-16-19-28-41 (osag.31/itz.1)

Astelehena 8

8-28-30-36-39-46 (osag.41/itz.1)

Martitzena 9

9-17-24-26-29-47 (osag.6/itz.0)

Eguaztena 10

3-18-26-30-32-46 (osag.21/itz.9)

PRIMITIVA

Zapatua 6

5-10-25-32-36-45 (osag.3/itz.6)

Domeka 7 Saritzarra

8-9-21-25-38-44 (osag.15/itz.0)

ONCE

Eguakitza 5: 49.820 (019 seriea)


Astelehena 8: 63.274

Martitzena 9: 17.951

Eguaztena 10:

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behakotia



Joan zen asteburukoa baino eguraldi hobea izango dugu zapatu eta domekan. Halere, tenporak agindu bezala, nahasi samarra izango dugu. Zeruan hodeiak eta ostarreak izango dira eta haizeak hegoaldeko joko du arin.

Eguzkia

Domeka, martxoak 14



Sortu: 07:32



Gorde: 19:25

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

Ilargiaren aldiak



Ilbehera: martxoak 10



Ilberri: martxoak 17



Ilgora: martxoak 24



Ilbete: martxoak 31

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m²
Eguena 4	8	3	23,4
Eguakitza 5	7	1	40,7
Zapatua 6	5	1	15,5
Domeka 7	13	2	0,2
Astelehena 8	17	6	-
Martitzena 9	14	7	-
Eguaztena 10	20	6	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Aoko zatar

Ahoko zapore txarra.

- Astelen goizetan mantzanillia artzen dot aoko zatarrak kentzeko.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Akabo hepatitis

Phyllanthus amarus Asian hepatitis B-aren aurka erabiltzen den landare-hautsa da; orain dela 2.000 urte inguru hasi ziren erabiltzen. Orain ordea, hautsaren prestakin estandarra prestatzen ari dira birusari aurre egiteko oso efektiboa dela frogatu baitute. Estatu Batuetan behinik behin, bi urte barru izango omen da kalean produktu berria, Berrikuntza Medikoen Zentruaren eskutik.

Farmaziak

Eguakitza 12:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Zapatua 13:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Domeka 14:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Astelehena 15:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Martitzena 16:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguaztena 17:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguena 18:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Ogia

Domeka 14: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 42
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 57
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 66

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 52
Erregistroa	943 76 13 73
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 65

zorion agurrak

Berrigara 360an, **MARTXOAREN 18a** eta **25a** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko dira.



Esmeralda Morcillo
Martxoaren 13an
20 urte. Urte asko-
tarako! Etxekoak.



Ainhoa Eguren
Martxoaren 12an
8 urte.
Urte askotarako!
Poligonokoak.



Maribel Okina
Martxoaren 13an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Igor.



Asier Arbulu
Martxoaren 15ean
14 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Francisco Murillo
Martxoaren 15ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Telleria
Martxoaren 17an
24 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Joxe Balanzategi
17an urtebetetzea.
Urte askotarako eta
muxu handi bat!
Leire eta Unai.



Unai Balanzategi
13an urtebete.
Urte askotarako
eta muxu handi bat!
Leire, ama eta aita.



Nerea Rodriguez
Martxoaren 14an
11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Bakarne Kapelastegi
13an urtebetetzea.
Jose, etxekoak eta
Elorrikoak.



Joseba Ormazabal
Martxoaren 14an
45 urte.
Urte askotarako!
Pepa eta Nerea.



Saioa Bardezi
Martxoaren 12an
20 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Asier.



Naiara Toledo
Martxoaren 13an
2 urte.
Urte askotarako!
Abitua eta amama.



Maritxu Igartua
14an urtebetetzea.
Urte askotarako eta
muxu handi bat de-
non partetik pottola!



Iban Casquero
Martxoaren 14an
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ander Casquero
Martxoaren 13an
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Ortiz de Zarate
Martxoaren 12an
16 urte. Urte asko-
tarako! Etxekoak.



Jasone Zabaleta
Martxoaren 14an
20 urte. Urte asko-
tarako! Familiakoak
eta batez ere ahizpa.



Unai Unamuno
Martxoaren 16an
3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Leire Asiain
Martxoaren 15ean
17 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Rita Cambronel
Martxoaren 12an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Diana Pineda
Martxoaren 13an
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maitane Mujika
Martxoaren 12an
11 urte. Urte asko-
tarako! Ahizpak eta
gurasoak.



Josu Mentxaka
Martxoaren 14an
7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Begoña Barrutia
Martxoaren 16an
34 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Javi Elortza
Martxoaren 15ean
35 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maria Garcia
Martxoaren 13an
41 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Franco
Martxoaren 16an
9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Lorea.



Jon Arrieta
Martxoaren 14an
11 urte. Urte asko-
tarako! Amama Lo-
ren eta lehengusua.



Andoni Bretaña
Martxoaren 16an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

hildakoak


- BERGARA**
Julia Maortua Madariaga
Martxoak 6, 79 urte
Mikaela Oianguren Kantabria
Martxoak 8, 79 urte
Francisco Javier Odriozola Roman
Martxoak 8, 66 urte
Josefa Etxeberria Bergaretxe
Martxoak 11, 92 urte

jaiotakoak

- BERGARA**
Hector Manuel Zapata Gil
Martxoak 5
Martin Alonso Oregi
Martxoak 9



Nerea Urbieta
Martxoaren 12an
15 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



Alberto Morras
Martxoaren 14an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Unai,
Gorka eta familia.

URTEURRENA

Josefa Gabilondo Albisua

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 14,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jose Maria Azkarate Retolaza

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 14,
goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ANTZERKIA

► **Oihulari Klownen** "Pekin 26.002" antzezlan bihar, zapatua, 22:30etan Oñatiko Santana antzokian.

► **Panta Rhei** taldearen "Zabor horia, zer da hori?" antzezlan bihar, zapatua, 18:00etan Antzuolako plazan.

► **Taun-Taun Teatroaren** "Txio-txioka" antzezlan domekan, hilak 14, 17:00etan Arrasateko Amaia antzokian.

► **Eibarko XXII. Antzerki Jardunaldiak:** astelehenean, hilak 15, Narruzko Zezen taldearen "Eloisa esta debajo de un almendro"; martitzenean, "Bodas de sangre" eta eguaztenean "La casa de Bernarda Alba" Escuela de Arte Dramaticoren eskutik. Emanaldi guztiak 20:30etan Unibertsitate Laboralean.

MUSIKA

► **Rogelio Botanz & Puntos suspensivos** gaur 23:00etan Soraluzeko frontoian.

► **Erramun Martikorena, Mikel Urdangarin eta Lorelei** gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan. Gauerdian, **Balerdi Balardi** eta **Bide Ertzean** Ateneoan.

► **Elkartasunaren eguna** bihar, zapatua, Bilboko

KONTZERTUA

Txepetxa eta Txilintxa abesbatzak

Noiz: zapatuan, 19:00etan
Non: Mariaren Lagundiko elizan

Bergarako Mariaren Lagundia ikaste-txearen sorreraren 200. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, kontzertu bat iragarri da bihar zapaturako. Bertan Donostiako eta Bergarako Mariaren Lagundiko abesbatzek hartuko dute parte. Lehenbizi, Donostiako Txepetxa abesbatzak, Ana Olazabalen zuzendaritzapean, honako lanak eskainiko ditu: "Mendizaleak gora" (herrikoia), "Batista Basterretxe" (Mokoroa), "Ixil-ixilik" (Luis Elizalde armonizatua), "Pandro zaharra" (Azpiazu), "Xexenak iges" eta "Eperrarena" (Garbizu), "Regina mundi" (autore ezezaguna) eta, azkenik, "Haurtxo polita" (Olaizola).

Donostiarren ondoren, "Txilintxa" abesbatzaren txanda izango da. Gaur egun 12 urtetik 16 urtera

bitarteko 35 gaztetxo inguru ari dira kororan. Lehen klase orduetatik kanpo entsaiztzen bazuten ere, orain Ikastolako beste ekintza bat bezalako da abesbatzako partaide izatea. Iñigo Alberdik bost urte daramatza taldearen zuzendaritzan eta biharko egitarau alai prestatu du, era askotako lanak abestuko dituztelarik: "Slyahamba" eta "Dubula" Hegoafrikako abesti herrikoiak eta ahots zurien kororako moldatutakoak, "Save mater" gregorianoa, Karibe aldeko "The banana boat song" Ainhoa Ernabide pianujolearen laguntzaz eskainiko dena, Sarasola konpositore gaztearen "Ave Maria" Enrike Txurruka organujolean partaidetzarekin edota "Hey Robin, joly Robin" Errenazimendu garaiko abestia. Kontzertu amaieran, bi taldeek Santa Juanaren ereserkia eskainiko dute Orkestra Sinfonikoko Soka Taldearekin batera.



Bergarako Mariaren Lagundiko abesbatza Erreterian duela hiru urte.

Erakustazokan 17:00etatik aurrera: Mikel Urdangarin, Amparanoia, Def con dos, La Parranda eta beste hainbat.

► **Jam:** bihar, zapatua, **techo no jaia** 23:00etatik aurrera eta martitzenean, hilak 16, Sick of it all, Indecision, Ensign eta

Thumbs down taldeen kontzertua, 20:00etatik aurrera.

► **Udal Musika Bandaren San Joseko kontzertua** domekan, hilak 14, 12:30etan Frontoian. Programa: Certamen levantino (Pasodoblea, P. Markina), Firestorm (S. Bulla),

Beauty and the beast (A. Menken) eta El metronomo de Maelzel (M.G. Bastida).

ERAKUSKETAK

► **Usoa Mendikuter** en margoak Nahikari tabernan.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:
8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar

Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

► **Mugen gainetik** taldearen "Afrika gure etorkizunean" erakusketa Kultur Etxean.

► **Bergara iruditan** argazki erakusketa Udaletxeko Pleno aretoan.

► **Xabier De Zerio**ren eskulturak Sopolako Kultur Aretoan.

► **Ion Andoni Urisabelen** margoak Bilboko Juan Manuel Lumbreras arte galerian (Henao, 3).

IKASTAROKAK

► **Islada Bideo Tailerrak** antolatutako photoshop ikastaroa izango da apirilaren 12tik 23ra bitartean, astebarruan 17:00etatik 20:00etara eta zapatutan 10:00etatik 13:00era. 943 77 91 58.

► **Urnietako Zine Aretoak** antolatuta, aktore zuzendaritza ikastaroa Enrique De Santiagoren eskutik martxoaren 22tik 31ra. Argibideak 943 008 042 zenbakian.

LEHIAKETAK

► **Jarduneko Gazte Taldeak** txorimalo lehiaketa iragarri du Erramu Zapaturako, martxoaren 27rako. Nahi duen edonork parte har dezake, bakarka nahiz taldeka (gehinez 8 partaide talde bakoitzean). Izen ematea Gartzela Zaharrean martxoaren 24ra arte zabalik. 943 76 36 61.

DEIAK

► **Gazteen lokalaren** proiektukoek dei egiten diete Bergarako gazte guztiei bihar, zapatua, 12etan Kultur Etxean izango den bilerarako.

► **Aizepe elkartearen** ohizko bilkura bihar, zapatua, 17:00etan lehen deialdia eta 17:30etan bigarrena.

► **San Joxepe** jubilatuen elkarteak Lizarrako "Txarri jana" jaira egun osoko irteera iragarri du martxoaren 17rako. Izen-ematea (3.750 pezeta, bazkaria barne) San Joxepe elkartearen. 943 76 21 40.

► **Aranzadi Ikastola.** Ikasleen etorkizunaren inguruko bilera martitzenean, 18:30etan, DBHko 2. mailako gurasoei zuzenduta. Eguaztenean, hilak 17, DBHko 4. mailako gurasoentzat bilera ordu berean.

KINTADAK

► **1956an** jaiotako gipuzkoarren anaiarteko eguna martxoaren 28an Zarautzen. Hildakoen oroimenezko meza 13:00etan Santa Maria parrokian eta jarraian bazkaria Aiten Etxe jatetxean. 943 76 11 73.

► **1958tik** 62ra (biak barne) bitartean jaiotako angiozartarren afaria apirilaren 17an Orzi jatetxean. Izen-ematea: 943 76 54 81/943 78 22 80.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Enemigo publico
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Gato negro, gato blanco
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema
Mas fuerte que su destino
Eguakitza: 22:00.

El milagro de P.Tinto
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia
Abril (Jatorrizko bertsoian)
Eguena: 21:30.

EIBAR. Unzaga
La delgada linea roja
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto
Amigos y vecinos
Eguakitzatik martitzenera: 22:15.

Jack Frost
Eguakitzatik martitzenera: 19:30.

OÑATI. Santana
Entre las piernas
Eguakitza: 22:30
Zapatua: 19:30, 22:30
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Tren de sombras
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola
La vida soñada de los angeles
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

El principe de Homburg
Eguena, zine-kluba: 20:15.

ENEMIGO PUBLICO

Zuzendaria: Tony Scott.
Aktoreak: Will Smith, Gene Hackman, John Voight.
Robert Clayton abokatuak (Will Smith) Thomas Bryan (John Voight) Segurtasun Nazionalako Ajentziako funtzionarioaren etorkizun profesionalerako informazio konprometitu dauka. Gauzak horrela, Bryan agenteak bereak eta bi egingo ditu abokatu gaztea bere paretik kentzeko baina Claytonek Segurtasun Nazionalako Ajentzian lanean ibilitako Brill agente ohiaren (Gene Hackman) laguntza estimagarria izango du...

GATO NEGRO, GATO BLANCO

Zuzendaria: Emir Kusturica.
Aktoreak: Bajram Severdzan, Florijan Ajdini, Srdan Todorovic.
Veneziako Jaialdian, zuzendari onenari zegozkion Urrezko Lehoia eskuratu zuen Emir Kusturicak (*Papa está en viaje de negocios, Underground*) bere azken lan honengatik. Erritmo bizia duen komedia honetan, bere semeen akzioen erruz, aspaldiko lagunak diren mafiako bi *padrino* lehian hasiko dira.



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



Egintza
Konponketa
Alokairua
Balkoia
Terrazak...
Erabilera guztietarako olanak

Kataide poligonoa, 14 pabilioia, Musakola auzoa. ARRASATE. Tf. 943 79 23 83

Ipintza Institutuko zuzendaritzak eta guraso elkarteak antolatutako jardunaldi pedagogikoei amaiera emateko, Xabier Tapia psikologo klinikoak "Adoleszentziaren problematika" izenburuko hitzaldia eman zuen astelehenean. Gazteek adoleszentzian jasaten dituzten aldaketak azaldu zituen Tapiak jendeaurrean.

G. Zein da adoleszentziaren problematika?


E. Bat baino gehiago dago. Batetik, gorputzaren problematika, hau da, gorputz aldaketa; hor badaude gorputz aldaketa nabariak direnak, sexualitatearen berpiztea eta gorputzean gertatzen diren hainbat aldaketa, luzatzeak etabar. Horrek badakar berarekin halako problematika bat. Bestetik, ikasketen arazoa dago; berriki aldaketak izan dira eta lehen 14 urte bitartean baziren derrigorrezko ikasketak, orain, berriz, 16 urterarte ezarri dira. Badago etorkizunaren problematika ere; gizartean nahiko ilun aurkezten zaie etorkizuna gazteei, langabezia dela eta. Gerorako perspektiba hori ez da hain garbia. Azkenik, adiskidetasuna eta aisialdia aipatuko nituzke; lagunarteko komunikazioak eta denbora librearen disfrutatzeko gaitasunak berebiziko garrantzia daukate.

G. Zeintzuk dira problematika horren ondorio nagusiak?

E. Aldaketa guzti horiek gaztearen jokabidea aldatu arazi egiten dute. Gazteak ez dauka lehengoan jarraitzerik eta bai bere jokabideetan eta planteamenduetan zein bere iritzietan aldatu beharra dauka. Ez dauka bere horretan jarraitzerik, okerrena ume izaten jarrai-

XABIER TAPIA
Psikologo kliniko

"Egoera soziala eta ekonomia direla eta, gazteek ez dute lehen adinako ilusiorik"



Xabier Tapia UNEDeko irakasleak adoleszentziari buruz jardun zuen Ipintzan.

tzea litzatekeelako. Aldaketa arazoa hor dago baina nola, noiz, noruntz aldatu, hor dago koska.

G. Erabakiak hartzen hasteko garai honetan, zein da guraso eta hezitzaileen papera?

E. Uste baino garrantzitsuagoa. Aldaketa egoera honetan bere eskola galdu balu bezala geratzen da

"Errespetoa, samurtasuna eta gertutasuna oso inportanteak dira adoleszentzian, gazteek galdutako ilusioa berreskuratzeko"

gaztea. Lehengoak ez dio balio, berririk ez du lortu eta aldaketa horretan beste laguntzaren beharrean geratzen da. Beraz, bai gurasoek bai irakasleek zeresan handia daukate nahiz eta gazteak protestatu. Gurasoen presentzia, gertutasuna guztiz beharrezkoa da. Guraso eta irakasle bakoitzak bere orientazioak izango ditu; horrek ez du esan nahi derrigorrean orientazio horiek bete behar dituenik. Baina erreferentzia batzuk edukitzea ondo datorkio, berak egokienak jotzen dituenak aukeratzeko.

G. Aurreko belaunaldiarekin konparatuz, zelakoak dira gaurko gazteak?

E. Nahiko lana badauka belaunaldi bakoitzak bere irantzen. Baldintzak aldatu egiten dira; arazoak ezberdinak dira, bizi baldintzak ere bai... Gaurko belaunaldiari buruz esaten da gauzak samurragoak dituela, gurasoak askotan haserre izaten dira seme-alabek gauzak errez dituztelako. Nik uste dut egia dela hori baina badituzte beste zailtasun batzuk, etorkizun iluna esate baterako. Egoera soziala eta ekonomia direla eta, ez dago lehen adinako ilusiorik. Presenteak beste urjentzia bat dauka eta ikusirik ez dago bai gurasoek eta bai gizarteak dituzten beldurrak. Gaztearen inguruan dena beldurra da: droga, alkohola, langabezia, suspentsoak...

G. Nola berreskuratu daiteke galdutako ilusioa?

E. Gaztearen, bere belaunaldiaren berezitasunak errespetatuz. Errespetoa, samurtasuna eta gertutasuna oso garrantzitsuak dira adoleszentzia garaian eta ilusioari dagokionez belaunaldi bakoitzak sortu behar dituen edo sortzen ditu bere ilusio propioak. **B**

Matxiategiko aparkalekuei buruz eztabaidaka alkatea eta oposizioa

Gobernu taldearen iritziz obrak legeak errespetatuz egiten ari dira

Hilerrriaren eta Matxiategi kalearen artean dagoen orubean egiten ari diren obran inguruan eztabaidatu izan zen astelehenean Victoriano Gallastegi alkatearen eta Jesus M. Garitano HBko zinegotziaren artean.

HBk gaia eztabaidatzeko Pleno bat konbokatzea eskatu zuen joan zen astean eta astelehenean bildu zen Udalbatza. HBko ordezkariak hartu zuen hitza lehenbizi eta aurreko astean prentsaurrekoan esandakolari heldu zion. Orube horretan egiten ari diren aparkalekuak Arau Subsidiarioak esaten duena ez duela errespetatzen eta obra-proiekturik ez dela aurkeztu adierazi zuen Garitanok.

Alkateak, berriz, gaia Plenoan eztabaidatu aurretik prentsaurrekoa konbokatuz izana kritikatu zion HBri eta bere ustez obrak




Kanposantu ondoko orubean barrakak jarriko dira Pazkuetan.

Arau Subsidiarioak errespetatuz egiten ari direla adierazi zuen, "plaza publiko baten elementuak, hau da, arbolak, bankuak eta aparkalekuak egingo direlako". Halere, obrak Arau Subsidiarioek esaten dutena errespetatuko ez balute, hauek aldatzeko aukera ba-

dagoela esan zuen eta udal arkitektuari proiektua Arau Subsidiarioen aurka doan ala ez aztertzeko txostena eskatu ziola esan zuen.

Alkateak obrak presaka egin beharrean aurkitu direla esan zuen, Pazkuetan barrakak jartzeko orubea egokitu beharra zegoelako.

Bost milioi pezeta gastatu edo ganorazko obra egin eta behin betirako inguru txukun lagatzeko 17 milioi pezeta gastatzearen artean, bigarren aukera honi eutsi ziotela adierazi zuen eta gaia Gobernazio eta Hazienda batzordeetan eztabaidatu zela eta obra aho batez onartu zela adierazi zuen. Garitanok erantzun zion Gobernazio eta Hazienda batzordeetako bere alderdikideek ez zutela zertan jakin beharrik obra Arau Subsidiarioak errespetatu barik egingo zen ala ez eta era honetako gaiak Hirigintza batzordean aztertu, eztabaidatu eta onartu behar zirela esan zuen "gaur da eguna obra-poiekturik ikusi ez duguna" gaineratu zuen. Alkateak esan zuen oposizioa beti dagoela katuari bost hanka topatzen eta Garitanok erantzun zion gobernuak ez duela kontu honetan zuzen jokatu.



Mendia Bizirik taldeak duen mintegian hazitako arbolak landatuko dira.

Zuhaitz landaketa egingo du zapatu goizean Mendia Bizirik taldeak

Mendia Bizirik taldeak zuhaitz landaketa egingo du zapatu goizean San Martzial inguruan. Mendia Bizirik taldekoek herritar guztiak, gazteak eta helduak, gonbidatu nahi dituzte landaketa egiteko. Irteera goizeko 9etarako iragarri da Oxirondo azokaren parean, San Martzialgo bidean.

Mendia Bizirik taldekoek mintegi txiki bat dute udal-lurretan eta mintegi honen bitartez, bertako landaretza suspertzea posible dela erakutsi nahi dute. Mintegian hazitako lehen haritz, gaztainondo eta arteak landatuko dituzte zapatu goizean, esan bezala, San Martzial inguruan.



Jakion S.L. sozietatearen egoitza Leintz-Gatzagan 1997ko irailean inauguratu zen eguneko artxiboko argazkia.

Jakion S.L. sozietatearen beste 122 akzio erosiko ditu Udalak

2.440.000 pezetako akzioak erosiko ditu

Jakion S.L. sozietatearen akzioen harpidetza eta sozietatearen kapital zabaltea onartu zituen Udaltzako aho batez astelehenean. Jakion S.L. Deba Garaiko baserriaren produktua, batez ere frutak eta barazkiak, komertzializatu eta saltzeko orain dela pare bat urte sortutako enpresa da. Leintz-Gatzagan kokatuta dago.

Begarako Udalak 122 akzioen harpidetza egingo du, bakoitza 20.000 pezeta-


koa; guztira, 2.440.000 pezetako akzioak erosiko ditu Udalak. Victoriano Gallastegi alkatea eta Felipe Altuna zinegotzia izango dira Jakion S.L. enpresako Bergarako Udalaren ordezkariak. Jakion S.L. sozietatearen estatutuak ere onartu zituen Udaltzako astelehenean.

Jakion S.L. sozietatea 5 milioi pezetako kapitalarekin sortu zen. 250 akzio saldu ziren hasieran: baserriarrek 39 akzio; Leintz-Gatzagako Udalak 35 eta Deba

Garaiko Mankomunitateak 176. Une honetan, berriz, beste 10 milioitako kapital gehikuntza egingo da. Beste 500 akzioen harpidetza egingo da Deba Garaiko udalen artean. Bergarako Udalak 122 akzioen harpidetza egingo du. Gainontzeko udalek: Antzuolak 26, Arrasatek 121, Oñatik 123, Eskoriatzak 41, Aretxabalek 40 eta Elgetak 5. Horretaz gain, beste 4 baserriarrek 22 akzioen harpidetza egingo dute.

Mikel Zubimendiren aldeko protesta ekitaldiak

Mikel Zubimendi bergararraren atxiloketa-rengatik protesta egiteko manifestazioak izan dira egun hauetan Bergaran. Bestalde, eguakitzera Jarrak borroka eguna deitu du eta HB manifestaziorako deia zabaldu du. Mikel Zubimendi martitzen goizean atxilotu zuen polizia frantsesak Pariseko hotel batean, beste bost lagunekin batera. Poliziak ETako kideak izatea leporatzen die. Eguazteenan atxiloketa gehiago egin zituen poliziak Gipuzkoako hainbat herritan. Mikel Zubimendi Jarrako bozeramalea izandakoa da eta aurreko legegaldian HBko legebiltzarkidea izan zen. 1996an atzerrira joan zen eta ordutik ez da bere berririk izan, martitzenera arte. Eguenera arte inkomunikatuta jarraitzen zuen Parisen, polizia komisaldegian.



Mikel Zubimendi.

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



Roman Larrañagak 5.000 argazki inguru eman dizkio Udal Artxiboari

Roman Larrañagak Udal Artxiboari egin dizkon argazkien dohaintza onartu zuen Udalbatzak aho batez astelehenean.

Roman Larrañagak 5.000 argazki inguru eman dizkio Udal Artxiboari, bertan identifikatu, klasifikatu eta gordetzeko. Sei bat argazki 1960. urtea baino lehenagoak dira eta ez dira Romanez ateratakoak, baina beste guztiak 1960tik 1985era bitartean, gutxi gora behera, Bergaran ateratakoak dira.

Roman Larrañaga, garai bateko Fotos Roman argazki dendakoa, 60 eta 70ko hamarkadetako eta 80ko lehen erdiko ekitaldi eta jarduera mordoaren lekuko



Erretratu gehienak 1960tik 1985. urtera arte ateratakoak dira.

izan zen eta bere argazki kamarak ekitaldi horiek betiko hartu zituen. Altxor hori dagokion moduan gordeta geratuko da aurrerantzean Udal Artxiboan. "Gehie-

nak kiroletakoak eta ekitaldi politikoetan ateratakoak dira: futbolekoak, motokrosekoak, manifestazioetan ateratakoak, Monzon Bergarara etorri zenekoak,

ikurriña legeztatu zutenekoak e.a. aurkitu daitezke bilduman. Horretaz gain, danborradetakoak, jaietako erreginaren aukeraketakoak, mis lehiaketakoak..., era askotakoak daude" esan digu Pili Azkaratek, Udal Artxiboan argazki hauek guztiak klasifikatu eta digitalizatzen aritzen denak.

Roman Larrañagaren argazkiez gain, beste bergarar batzuek emandakoak ere gordeta daude Udal Artxiboan. Herritarrek ikusteko aukera badute eta baita eramateko ere. Soporte digitalean eraman daitezke, eta nahi izanez gero argitaratu ere bai, baina beti ere argazkia norena den eta nondik hartutakoa den adieraziz.

Aurrekontuaren %0,7 emango du aurten Udalak hirugarren mundurako

Bergarako Udalak hirugarren munduko herrialdeen garapenerako aurten 6.200.000 pezeta bideratuko ditu, hau da, Udal aurrekontuaren %0,7.

Aurtengoa lehenengo urtea da Bergarako Udalak hirugarren munduari laguntzeko portzentaia hori lorren duena. Legealdi hone-

tako lau urteetan 19.750.000 pezeta bideratu ditu Bergarako Udalak hirugarren mundura. 1996. urtean hiru milioi eta erdi izan ziren; 1997an, lau milioi eta erdi; iaz 5.550.000 PTA eta aurten 6.200.000 PTA.

Diru laguntza gobernuz kanpoko hainbat erakunderen bidez bideratu da.

Laster zabalduko dute gazteentzako informazio zerbitzua Kultur Etxean

Gazte informazio guzuzeneko zerbitzua Maider Sedanori adjudikatu dio Udalak 1.596.000 pezetatan. Kultura Zerbitzuaren asmoa lanean lehenbailehen hastea da, baina zerbitzua ez da zabalduko oraindik. Gazte Zerbitzua Kultur Etxean jarriko da eta 15 urtetik 29 urtera ateko gazteei

zuzenduta egongo da (Bergaran adin horretako 3.500 gazte inguru daude). Euren zuzendutako informazioa emango da: bekak, bidaiak, ikasketak, lana...; Diputazioako gazte zerbitzuko sarean konektatuta egongo da. Eguen eta eguakitz arratsaldetan eta zapatu goizetan izango da zabalik.

MUJIKA
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91



Barrenkalea 31

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Berrigara

359 zenbakia.
1999ko martxoaren 12a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpideta: Itziar Kortabarría.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Mirari Alberdi, Mariji Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkoroberebizbar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugaldé, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martín Elexpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

EIBAR-GASTEIZ AUTOPISTA ZERTARAKO?

Administrazioak Eibar-Gasteiz autopistaren obrak apirilean hasteko asmoa duela eta, Soraluze eta Bergarako lurren espropiazioarekin hasi da. Eraikuntza erraldoi honentzako diru nahikorik ez dagoenez, momentuz Soraluze eta Bergara arteko tramoarekin hasiko dira, inolako beharrik ez dagoen tokian hain justu, zergatik izango ote da? Itoitzen bezala, betiko aitzakia jartzeko izango ote da? Obrak hasiak daudela eta ezin direla gelditu.

Administrazioa gai honen inguruan ziria sartzen besterik ez dabil: azken momentura arte ez zuten autopistaren proiektua publiko egin, alegazio epea abuztuaren jarri zuten, IGP/NIPetik ateratako erantzuna ez dute errespetatu, autopista honen beharra dugula saltzen ari zaizkigu, A-8 (Bilbo-Behobia) autopistaren peajea 40 urtez luzatuko dute, 2003. urtean peaje gabekoa izan beharko litzatekeela eta abar luze bat.

IGP/NIP-etan gaur egungo errepideen hobekuntzetan oinarritutako proposamenak izan ziren ondoen baloratuak, administrazioaren proposamenak (autopista), berriz, %15aren sostengua lortu zuen soilik, baina ez dute herriaren hitza errespetatu eta autopista eraikitzea erabaki dute.

Autopista honen beharrik ez dago, ez dugu behar Maltzagatik Gasteizera joango den 4 karrileko errepide berria, bailarako herrien arteko komunikazioa hobetzea baizik. Deba bailaran dagoen trafiko arazoa, barne trafikoa da, hau da, Bergararik Arrasatera, Eskoriatzatik Bergarara eta abar. Peajea izango duen autopistak ez digu arazoa konponduko. Benetan behar dena zera da: orain dagoen errepidea oraingo egoerari egokitzea, egin berriak diren bariante guztiak erabiliz. Baina adminitrazioak hau horrela izan ez dadin bere medio guztiak erabiltzen ditu eta autopista baten beharra saltzen digu, hobekuntzaren beharra baztertuz.

Ingurugiro aldetik ere gure bailarak errespetu gehiago behar du, zer gertatuko da gure bailaren ingurugiro baloreekin administrazioak proposatzen dituen eraikuntza guztiak zurrera eramaten badira? Eibar-Gasteiz autopista, Abadur Handiko Trena, Elgea eta Irukerutzetako 2 makro zentral eolikoak...

Ordua da horrelako eraikuntzak seriotasun gehiagorekin hartzeko, eta behingoz, herriaren benetako beharrak bultzatzeko.

Deba Bailarako Eguzki

tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

Makomunidiak hirugarren kontenedore bat jarri behar dabela eta, erabiltzen ditzuzu oiñ darenak?



Mari Cruz Sierra

Bai, etxetik gertu dauzkat eta ez dit lan handirik suposatzen horrek. Etxean zaborra sailkatzeko ohitura daukagu eta ondo ikusten dut zaborra birziklatzea.



Dina Mujika

Bai, papela alde batetik, pilak eta kristalak be pillatzen ditudugu eta gero kontenedoretara eruan. Antzulan etxetik nahiko gertu dauzkat kontenedoriak.



Jose Francisco Robledo

Beirazko ontzirik ez dut erabiltzen eta papera batzeko kontenedorea erabiltzen dut bakarrik. Egia esan, latak eta plastikoak jasotzekoa igual ez nuke erabiliko.



Nerea Aranguren

Angiozarren kontenedore bakarra daukagu eta pillak eginda dauzkatenian eroan egiten ditudut, astean behin. Ondo ikusten dot materialak erreziklatzia.



Juan Jose Manzanos

Ondo dago hirugarren kontenedore bat jartzea baina jendea kontzientziatu beharra dago lehenbizi, zaborrak ondo sailkatzeko. Gu saiutzen gara hori zaintzen.



Juan Mari Aizpurua

Bai, hemen eta Zaragoza al-dian be ibiltzen naiz eta badaukat zaborra sailkatzeko ohituria. Zenbat eta material gehixago errekuperatzeko aukeria egon, hobe.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

PESA AUTOBUSEN INFORMAZIO ESKASA

Juan Antonio Gomezek deitu digu aste honetan, Pesa autobus konpainiaren inguruko kexa bat azaltzeko. Juan Antoniok astelehenean Bergarako estaziora deitu zuen telefonoz autobusen ordutegia jakiteko baina, nahiz eta behin baino gehiagotan saiatu, ez zuten telefonorik hartzen. BERRIGARA GIDA kontsultatu ondoren, bezeroen informaziorako zenbakira deitu zuen baina bertako erantzun-gailuak erantzun zionez, informazioa astebarruan 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara eta zapatutan 9:00etatik 14:00etara eskaintzen da bakarrik. Juan Antoniori ez zaio bidezkoa iruditzen Pesak bezeroei eskaintzen dien tratua.

■ ikuspuntua: jon altuna

Gorritu

"Garzon=Pinochet" ikusi nuen pareta batean. Eta pentsatzen jarri. Ez dago itsu handiagorik ikusi nahi ez duena baino, eta gor handiagorik entzun nahi ez duena baino. Diktadorea torturatzaile izateagatik zigortu nahi duen epailea, torturaren aurkako eta giza eskubideen aldeko eredu izan zitekeen, baina ezagutzen dugu Garzon eta ez zaio barritik atera. Bere epaitegitik hainbat euskaldun pasatu dira, jipoituta, hitz egiteko gai ere ez zirela irtendakoak, eta horren aurrean ez du ezertxo egin; hontzarena, gor eta itsu.



Hori gertatu zitzaion Pepe Reiri ere. Kartzelan egon, Madrilen epaitu eta libre geratu zen. Orain, berriz ere, kartzelan Garzonen aginduz. Ezer ez izan eta bai usté... mierda para uste. Aseezina da Garzonen handinahia eta, ondorioz, erabaki ulergaitzak hartzen ditu. "Egin" itxi zuen, eta prentsaurrekoa Mayor Oreja ministroak eman. Juezen

Bestetan, belarrira ezer esatea nahikoa da euskaldunak atxilotzeko. Atxiloketak telebistan agertuko dira. Gero, libratzen ditzutenean, ez da notizia.


independentzia kolokan zela argiago geratu zen Aznarrek "zer, ez ginela ausartuko uste zenuten, ala?" esan zuenean, non eta Turkian, kurduak zapaltzen eta torturatzen ditzuten diktadoreak bizitaten ari zela. Orain, Pepe Rei, Mielon eta beste atxilotuak.

Torturen aurrean begiak itxi ditu, "Egin" en heriotz zigorra sinatu zuen, orain Pepe kartzelan sartu. Pinotxok bezala sudurra luze-luze izan dezala opa diot, lotsa pisikat sentitu dezan independentisten aurka edozer egiteko prest dagoen epaileak.

1999 zenbakiak beharpenak gogorarazten dizkit. Ea 2000. urtea, zenbakia bezain borobila den. **B**

■ asteko menua: **erreki erretegia**

Lupina parrilan



INAS ETXANIZ
Erreki erretegiakoa

OSAGIAK (4 laguentzat)

- Lupina kilo bat
- Frijitua egiteko:
 - Gatza
 - Oliba olioa
 - Ozpina
 - Limoia

PRESTAKETA

- Lupina gatzarekin ondo busti eta parrillan jarri; txingarretik 10 zentimetrotara.
- Arraina, alde bakoitzetik, 10 edo 11 minutuz eduki parrilan.
- Parrilatik atera, erditik zabaldu eta bizkar hezurra eta hezur nagusiak kendu.
- Maharira atera aurretik, frijituaz ondo busti.

■ adituen esanetan

Udaberria eta intsektuak

ROMAN LAZPIUR, *al baitaria*

Udaberriaren etorrerarekin badira intsektuek animalian sortzen dituzten arazoak. Alde batetik, prozesionaria aipatu dezakegu; poltsatxo zuri batzuk osatuz pinuei erantsita dauden harrak udaberrian jaisten dira arboletatik, "prozesioan" (hortik prozesionaria hitza), eta askotan txakurrak har horiek miazkatzen dituzte. Harrek azalean duten azidoa dela eta, kontaktuan, txakurrek erreazio alergikoa jasaten dute eta mingaina handitu edota erretzeko arriskua dago. Oso mingarria gertatzen zaie eta badago mingain zati bat galtzeko arriskua ere. Horrelakoetan txakurra injekzioekin edo antibiotikoekin trata-

menduan jarri behar da. Prozesionariaren ondorioz, arnasa hartzeko arazoak ere izaten dituzte txakurrek.

Bestalde, udaberriko loraldian erlek eta listorrek nahiko buruhauste ematen dituzte. Txakurrak jolasean ari direla, askotan pikatadak jasaten dituzte ahoan edo muturrean eta erreazio alergikoa saihesteko injekzioen tratamendua aplikatu behar da, muturra handitzea oso mingarria gertatzen zaie-lako. Arnasa hartzeko eragozpenak edota odola gatzatzeko arriskua dago. Azkenik, nahiz eta pozoi oso potentea ez izan, araknidoek ere hanturak eragin diezazkiekete txakurrei. **13**

■ bergarako gordailutik

AURIDITAR PEDRO Imanol Sorondo

Bazeuden Bergarako baserri batzuetan eta inguruko lurretan gizon ahaltsu eta asko zezaketenak 1351. urtean; hauen artean bat, Uriditar Pedro.

Lehendik ez bazen horrelakorik egiten ere, orain hasi berri dira ardoa, sagardoa eta janari batzuk baserri eta esandako toki horietan saltzen. Gertatu dena zera da, babes eta laguntza horiekin lapurrak eta gaizkileak asko ugaritu direla inguruetan eta kaleko biztanleak beldurtu eta ez direla erraz mugitzera auzartzen. Ohitura bestelakoa izan da eta Uriditar Pedoren eta beste horien jokabidea beti galerazita egon da. Gauza handitzen joan da, eta Bergarako agintariek Erregerengana jo dute. Gainera, mandozainak eta joan-etorrian dabiltzan bidaiariak ere beldurtu dira, eta gutxiago dabilta edo, behintzat, gutxiago ibiltzeko arrisku handian daude, horrek sortarazi ditzakeen kalte izugarriekin.

"Erregeak Valladolidetik Uriditar Pedrori eta salmentak egiten dituztenei ez saltzeko agindu die, ez Bergaran, eta ezta kanpora legoa batean ere"

Pedro I erregeak dioenez, arratsatearrek ere berarengana jo dute eta idatzi bat izenpetuz, Bergarako salakuntzarekin adostasuna zeharo adierazi dute. Erregeak Valladolidetik Uriditar Pedrori eta salmentak egiten dituzten besteei ez saltzeko agindu die, ez Bergarako muga barrerean, eta ezta kanpora legoa batean ere. Ondoren isunak ipini dituzte agindu horren aurka doazenezazko, eta euskarri batzuk ugaritu ere bai agindua babesteko. **13**



Herrerako mendatean

Argazkiak agertzen den bikote honek lagunak kontura bazkaldu zuen joan zen otsailaren 6an. Kontua da koadrilakoek ez zutela uste **Igor Iñurategi** eta **Iban Agirrezabal** Herrerako mendatea bizikletaz igotzeko gai izango zirenik. Esan bezala, Araba eta Errioxa artean dagoen **Herrera** mendatera abiatu ziren eta Igorrek eta Ibanek Herrerako (1.109 m.) aldapa gogorrei aurre egin zieten. Ez dugu esango Pantaniren estilo eta erreztasunarekin igo zutenik baina iritsi ziren bai Herrerako gainera. Ondoren, **Eltziego**ko bodega batean bazkaldu zuten hara joandako 6 lagunek. Goriako Igoera datorren eguakitzean jokatzen dela eta, hara hor primerako bi eskalatzaile...



Emakumeen txokolatada

Urtero moduan, Udalak antolatzen dituen ikastaro eta jardueretan parte hartzen duten emakumeek **txolotada** izan zuten astelehenean, martxoak 8, **Emakumearen Eguna** ospatzeko. **Ongizarte Zerbitzuko ikastaroetan eta HHI-EPA zentroan** ari diren 60 bat emakume bildu ziren herriko jate-txe batean. Txokolate goxo-goxoa hartu ondoren, dantzan egiteko aukera ederra izan zuten Maitane (soinua) eta Saioa (panderoa) trikitilariak eskainitako piezekin. Jai giroa izan zen nagusi.



Pepe eta Lore


Pepe Arribas bergararra **Lore Aranzabal** eibartarrarekin ezkondu zen joan zen **otsailaren 20an**. Eibarko Udaletxean berrizte lanak egiten ari direnez, **Portalea Kultur Etxean** ezkondu ziren Lore eta Pepe eta, elkarri baietza eman ondoren, senide eta lagunekin bildu ziren **Arraten** egindako bazkarian. Lagun batek bidalitako argazkian ezkonberri bikotea Arraten. Ezkontza bidaia egitera **Egiptora** abiatu ziren. Zorionak!!

Txorimalo lehiaketa

Gehienez 8 partaide taldeko
Hiru maila: 14urtera artekoak, 5-60 urte bitartekoak
eta 60 urtetik gorakoak



**Bergaran Erramu zapatuan,
martxoaren 27an, Sari bikainak!**



Anima zaitez!

Informazioa:

Kartzela zaharra

Tf. 943 76 36 61



**11 urtetik gorako gaztetxoek
oraindik aukera daukazue
Kartzela Zaharrera etortzeko!**

Aukera ugari dituzue...

Txistorradak, irteerak (patinatza, mendira...),
ekintza bereziak, musika entzuteko txokoa, jolasak...



**Hurrengo irteera Arabako
Valderejo parke naturallera
egun osorako!**

kontuola


KONTUOLA, Idolaz elkarte, **ANTZUOLA**. **Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Goizon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 33 zenbakia. 1999ko martxoaren 12a.

Udalak bultzatutako etxebizitzak

Martxoaren 18an amaituko da izena emateko epea

Otsailaren 13an egin zen Antzuolako Udalak bultzatutako etxeei buruzko bigarrena zine aretoan. Jende ugari elkartu zen han, baina entzundakoari buruzko iritzia oso ezberdinak entzun ahal izan dira egunotan kalean. Batzuen ustez Udalaren eskaintza ondo dago, egoera ekonomiko ona dutenez. Beste batzuen iritziz, ordea, Udalak beharra dutenei laguntzeko eskaintza egin behar luke. Hau da, etxeen salneurria ondo dago kalitate eta prezioari begiratuz gero, baina soldata txikia dutenez ez dirudi eskaintza horren eroso denik.



Honela geratuko da herria kale eta eraikuntza berriekin.

VALEN MOÑUX

Udal Etxegintzaren etxeek 13 milioi eta erdiko prezioa daukate, BEZaz gain. Udalak bultzatutako etxebizitzek sukaldaria, egongela-jangela,

hiru logela, komuna, bainua, trastelekua eta garaje irekia izango dituzte. Mikel Larrea alkatearen esanetan, "Udalak bultzatutako etxeak ez dira babes ofizialeko etxeak. Etxebizitza hauetan edonork eman dezake izena. Puntuaren arabera aukera gehiago edo gutxiago".

JENDEAREN ESKAERA

Udalak aurkeztutako proiektua herrian egindako inkesta batean oinarritzen da. Etxeen tamainari dagokionez zera azaldu digu alkateak: "Gehienek 80 bat metro karratuko etxeak nahi zituzten, hiru bat logelarekin eta garajearekin. Udalak 32 etxebizitza egingo ditu ia denak metro karratu antzekoekin. Ezingo genuke etxe gutxi batzuk txikiagoak egin, etxebizitza kopurua legeak lagatzen duena baino handiagoa izango zelako".

ESKAERAK NON ETA NOIZ

Etxebizitza berriendako izen-ematea martxoaren 18an, eguena, amaituko da. Dagoeneko banatu dira horretarako orriak. Dena den, oraindik norbaitek ez badu informaziorik jaso edo izenik eman, Udaletxera jo baino ez dauka. ■

■ ■ ■
Etxeek 13 milioi eta
erdiko prezioa
daukate, BEZaz gain
■ ■ ■

EROSLEAK HAUTATZEKO KONTUAN HARTUKO DIRENAK:

- Etxean biziko direnen **diru sarrerak**, ondareko baliabideak eta gizarte-egoera eta lan-egoera: 40 puntu gehienez.
- **Mugitzeko arazoak:** 15 eta 5 arteko puntuazioa.
- Etxe bakoitzean biziko direnenak: sei lagun izango direnak 15 puntu, eta bakarrik 0.
- Herrian erroldatua egoteak 15 puntu. Antzuolan bizi ez, baina herrian lan, 5.

Beraz, gehienez 100 puntu izatera heldu daiteke eskatzailea

Badator Korrika Antzuolara!

Aurten hamaikagarren Korrikak zeharkatuko du Euskal Herria, euskararen alde. Martxoaren 19an aterako da "1+1=hamaika, zu eta ni euskaraz" leloarekin Iruñetik eta martxoaren 28an iritsiko da Donostiara.

Antzuolatik ere pasako da hamaikagarren Korrika. Martxoaren 24an izango da hori. Baina ez da orain dela bi urte bezala, egunez pasako. Gauerdian iritsiko da, gutxi gorabehera 23:40 aldera. Dena den, adi-adi egon beharko dira korrikazaleak eta lekukoa hartuko dutenak, gauzez azkarrago egiten baita antxintxika! Lekukoak, beti bezala, Korrikaren kmak erosten dituztenek hartuko dituzte. Bergaratik etorriko da eta Zumarraga aldera egingo du. Handik, Urretxu, Logazpi, Oñati, Arrasate eta Gasteiz aldera joko du.

KORRIKA PRESTATZEN

Antzuolako Korrika batzordeak, bilera egin zuen joan zen martitzenean. Korrika herrira heltzen denerako giroa berotzeko asmotan, Korrikaren aldeko kuestazioa egitea erabaki zuten batzordekideek. Domekan, martxoaren 14an, izango da



Orain dela bi urte, martxoaren 17an pasatu zen Korrika Antzuolatik.

hori, arratsaldeko 18:00etan hasi eta 19:30ak arte.

Herriko plazan gainera, Korrika 11ko materiala ere jarriko da salgai (kamisetak, jertseak, prakak eta galtzontzi-look, besteak beste).

Herriko eskolak, gainera, Korrika Txikia egingo du seguruen. Aurten, Korrika Txikia, goizez izango da. Izan ere, herriko ikastetxeko neska-mutikoek eguazten arratsaldeetan jai izaten dute. Dena dela, oraindik ez da erabaki.

Batzar Orokorra egingo du Idolazek

Idolaz, euskara elkarteak, dagoeneko erabaki du noiz egingo duen urteko batzar orokorra. Martxoaren 30ean, martitzena, izango da, hain zuzen ere. Horretarako elkarteak bazkide guztiei deia luzatuko die, liburutegian elkartu daitezten arratsaldeko 20:00etan.

Gaur egun Idolazek 150 bat bazkide ditu, gutxi gorabehera. Hauei guztiei, gainera, laister pasako zaie urteko kuo-

ta. Dena den, eta Idolazeko zuzendaritza batzordeko kideek azaldu digutenez, "bazkide zerrenda berritu beharra dago. Izan ere, zaharkituta gelditu da eta bazkide askoren egoera aldatu egin da bazkide egin zirenetik".

Gauzak horrela, batzar orokorrean, besteak beste, kuotei dagozkien aldaketen berri emango du zuzendaritza batzordeak. Aldaketen artean, jubilatuen kuotari dagokiona da aipagarriena.



Orain arte, jubilatuek 3.000 PTA. ordaintzen zituzten. Idolazeko zuzendaritza batzordeak, ordea, langabetu eta ikasleek ordaintzen duten kuota bera jartzea erabaki du jubilatuei. Hau da, 500 PTA. Idolazeko kuotak, beraz, langabeentzat 3.000 PTA. eta langabetu, ikasle eta jubilatuentzat 500 PTA.koa izango dira.

Bilera, martxoaren 30ean, liburutegian, arratsaldeko 20:00etan izango da.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedituek bideratzen ditugu

Zabor horia, zer da hori?

Panta Rhei antzerki taldeak "Zabor horia, zer da hori?" izenburuko antzezlan eskainiko du domekan, martxoak 14, Herriko plazan. Antzerki saioa, Arrasateko Udalako Ingurugiro Eskolak eta Deba Garaiko Mankomunitateak "Zaborraren problematika aztertzen" izenarekin martxan jarri duen kanpainaren barruan dago.

Mankomunitateak tetrabrik ontziak, plastikoak eta latak jasotzeko jarriko dituen edukiontzien erabilera bultzatzeko jarri du martxan kanpaina. Martxoaren amaiera aldera, Antzuolan ere kolore horiko edukiontzia izango dira, papera eta beirak birziklatzeko edukiontzien ondoren. Edukiontzi berriak tetrabrik ontziak, plastikoak eta latak birziklatzeko izango dira.

KONTZIENTZIAZIO KANPAINA

Mankomunitateak martxan jarri duen kanpaina, kontzientziazio kanpaina da.

Zaborrek sortaraz ditzaketen ingurugiro arazoak eta zaborra tratatzeko erabiltzen diren metodoak ezagutzeko, herriko edukiontzietako funtzioa hobeto ezagutzeko eta horien garrantziaz jabetzea, zaborra birziklatzea naturaren defentsarekin erlazionatzea, zaborrari ematen zaizkion tratamenduak behatzea eta horien alde onak eta txarrak eztabaidatu eta neurririk gabeko kontsumoak hondakin gehikuntza dakarrela jakinaraztea dira kanpaina horren beste helburuak.

Horretarako, domekan Herriko plazan (eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan) ikusi ahal izango den antzerki saioa, beste hainbat herri eta ikastetxetan ere egingo du Panta Rhei antzerki taldeak. Joan zen astelehenean esaterako, Bergarako Ipintza institutuko ikaslearen aurrean aurkeztu zuten antzerki saioa.

Antzerki saioekin batera, ikasleei zuzendutako bestelako ekintzak ere antolatuta dira, LH eta DBH ikasleentzat.

A ZE PAREA!

Gauzak askok aldrebestu beharko lirateke, datorren zapatuan, martxoaren 13an, San Blasen gertatuko dena ez pasatzeko. Izan ere, Jone Larrañagak, Kontuolako erredakzio kontseiluko kidea, eta bere mutil lagun Andoni Rodrigezek egun hori eta leku hori aukeratu dute elkarri baietza emateko. Ziur zaudete, ezta? Jakin dugunez, gainera, ezkonberri bidaia Kubara egingo dute. Askok ezkongabe egonik egingo luketen bidaia; baita ezkonduetako askok ere! Kontuz, beraz, bikote eta ZORIONAK!



ERRETIROA MINTZAGAI

Martxoaren 17an, eguaztena, hitzaldia izango dute herriko jubilatuek. "Erretiroa: aro berri baten hasiera" izeneko hitzaldia eskainiko da. Hitzaldia arratsaldeko 17:30etan izango da Jubilatuetan.

MENDI IRTEERAK

Arrolak eskolarteko mendi irteera antolatu du datorren domekarako, martxoak 14. Aretxabaletara abiatuko dira goizeko 8:00etan eskolako neska-mutikoak. Hurrengo irteera, berri, martxoaren 28an izango da. Jadanik ohizkoa bihurtu den irteera izango da domeka horretan egingo dena: Antzuolatik Arantzazura, hain zuzen ere. Irteera goizeko 06:30etan izango da, Herriko plazan.

GALDUTAKO GILTZAK

Gaztelugainera bidean topatutako giltzak sorta bat laga dute Udaletxean. Jabeak Udaletxean izango ditu jasotzeko.

Presoen alde

Joan zen zapatuan manifestazioa egin zen Antzuolan, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala. "Euskal Presoak Euskal Herrira" eskaerarekin bat egiteko, herritar ugari elkartu zen Herriko plazatik atera zen manifestazioan. Manifestaziora Udalak eta herriko hainbat elkarterk deitu zuten, horien artean, alderdi politiko, sindikatu, kultur elkarte eta giza mugimenduek.



GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imutazioak.

ANTZUOLA BERGARA
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Aitor Larrea, txirrindularia

“Asko gustatzen jat bizikletia!”

23 urteko txirrindulari honek Born Jay txirrindulari talde arrasatearrarekin fitxatu du. Joan zen zapatuan Santanderrera abiatu zen denboraldiari hasiera emateko, baina eguraldi txarrak ez zion laga bizikletan ibiltzeko duen sasoia erakusten Kantabriako lurretan.



Nolatan ekin diozu berriz bizikletari?

Eneukan asmorik bizikletan ibiltzeko, baiña Behobia-Donostia maratoiaren ostian antxitxikarik ezin nebala egin esan zosten. Orduan berriz bizikletan hastia erabaki neban.

Iaz triatloia egiten aritu zinen?

Probatze aldera ibilli nintzan. Baiña horrekin batera karrera batzuetan be egon nintzan neure kasa. Bizikletan ibiltzen nintzian noizian behin karreretara be juan nintzan.

Talde barik ibiltzea gogorra da?

Pixka bat bai. Bakarrik juan bihar zara karreretara; baiña askatasun haundixagua daukuzu. Baiña karrera batzuetan ezin dozu parte hartu talde barik. Dana dala, taldiakin hobeto.

Lehen ere aritu zinen Arrasaten

Lehenengo urtia afizionatueta Iberdrolan ibilli nintzan. Gero Mondragoeko ekipo hau etara zebenian, ia han ibilli nahi neban galdetu zosten eta baietza emon neban. Baiña orduan oindio Arrasate Txirrindulari Elkarte zan.

Zela ikusten duzu denboraldia?

Talde majua daukagu. Jente gaztia dago. Helburua, hortxe gustura ibiltzia eta ahal baldin bada karreraren bat irabazia! baiña gustatzen jatelako ibiltzen naiz, nere zaletasuna horixe da.

Entrenamenduak eta lana, ondo konpontzen zara?

Lanian hasi nintzian zutik egotian hankak kargau egitten jaten. Oin beste lan bat daukat eta hobeto. Errelebotan nabillenez, gaiñera, ondo, batez be arratsaldez.

Zapatuan Santanderren ez zenuen zorte handirik izan.

Edurragatik karrera hasi baiño bost miñutu lehenago ailegatu giñan. Gure bizikletak atzetik zetorren kotxian zeren eta ezin izan giñuan ezer egin. Domekan Laudiora juan giñan eta han hobeto, baiña igarri egitten zan denboraldia hasi berri daukagula.

Mediku partikularra daukazu ezta?

Taldian ibilli nahi neban esan zostenian neure kasa nebillen entrenatzen, eta Iñaki Arratibelengana juan nintzan entrenamendu bat ipintzeko eta oin horixe egitten dot. Egutero 80-90 km egitten ditud.

Ze lasterketa irabazi nahiko zenuke?

Datorren zapatukua, Lasarten. Izen haundiko karrera da, baita Eibarko Balentziaga


karrera be. Baiña ezte neretako modoko karrerak; aldapa asko dago.

Noizko profesional mailara?

Hori nekeza da. Gaiñera “entxufismo” haundixa dago. Ondo ibilli bihar zara eta erakutsi bihar dozu balio dozuna, baiña badare gutxiago erakutsitta ailegatu direnak... ■



Zapatuan Lasarten izango da Aitor.



Helburua, hortxe gustura ibiltzia eta ahal baldin bada karreraren bat irabazia!



ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotua
- Mokat eta tapizatuak



Mikel Goñirekin batera, Jose Mari Zezeaga pilotariak Espainiako Binakako Txapelketaren finala jokatuko du domekan Logroñoko Adarraga pilotalekuan. Zezeagaren bosgarren finala izango da eta irabaztekotan bigarren aldiz jantziko du txapela. 1993ko martxoaren 21ean enpresa tradizionalak antolatu zuten txapelketa lortu zuen Jokin Etxanizekin, Urionaguena eta Galarzaren kontra, Bergaran, 22 eta 15eko emaitzarekin irabazi ostean. Domekako finalaren atarian trankil da uberarra.

Jose Mari Zezeaga

“Finala atzeko koadroetan erabakiko da”

Mikel Goñi zure bikotekidea eta zu zeu, momenturik onenean zaudete finala jokatzeke?

E. Zaila izango da, final guztiak bezala. Egun batekoa da eta txarto jokatu ezker ez dauka bueltarik. Baina maila ona erakutsi dugu azken partiduetan eta sasoi aldetik ondo gaude. Ea domekan gauzak ondo ateratzen zaizkigun...

G. Olaizola eta Elkoro zuen arerioak ondo baino hobeto ezagutuko dituzue. Zelako bikotea da?

E. Bi bikoteak antzerakoak gara; aurrean biak oso jotzaileak dira eta atzean biok nahiko beteranoak. Domekako finalean asmatzen duen aurrelariak min asko egingo du. Nire ustez fi-

nala atzeko koadroetan erabakiko da. Bi aurrelariak kolpe izugarria daukate eta euren jokoarekin asmatzen badute biotako bat atzean gaizki ibiliko da.

G. Txapelketa hasi baino lehen Etxaniz eta Lasa ziren zure favoritoak. Nahiago zenuen euren kontra jokatzea?

E. Hori ez da sekula asmatzen. Etxaniz-Lasa oso bikote konpentsatua da baina Olaizolak partidu handia egin zuen finalerdietan eta finalerako txartela lortu zuten. Baina bikote bezala Jokin aurrelari “natoa” da eta Lasa atzelari bikaina. Oso bikote ederra dela uste dut. Goñi eta Titin ere kanpoan geratu dira eta horrek esan nahi du beste bikoteak ere nahiko fuertek irten direla.

Jose Mari Zezeagak bere bosgarren finala jokatuko du domekan Logroñon. Mikel Goñi gaztearekin batera txapelketa bikaina burutu du uberarrak.

“Hain gaztea izanik, akatsak ere baditu Goñik; ez dauka pazientziarik tantoa amaitzeko eta defentsan hobetu beharra du. Pilota serio hartzen duenean gorakada handia joko du”

G. Zela joan da txapelketa?

E. Denetik eduki dugu; partidu batzuetan emaitza eskasa lortu dugu baina txapelketetan puntuak dira inportanteak eta partidu inportante batzuk irabazi eta gero, finalera heltzea lortu dugu.

G. Domekako partiduaren ostean, komunikabideek Goñiren lana gorai-patu dute astean zehar...

E. Beti pilotari gazteren bat irtetzen denean gauzak esajeratu egiten dira pisikat. Egia da oso kolpe indartsua daukala Goñik. Momentuan beharbada bera izango da pilota bortitzen jotzen duena. Baina hain gaztea izanik, akatsak ere baditu; ez dauka pazientziarik tantoa amaitzeko, eutsi egin behar zaio eta defentsan ere hobetu beharra dauka. Hala ere, argi dago etorkizun ikaragarria duela. Zaletuek ere badakite hori eta bere jokoa ikusgarria denez, horregatik dauzka horrenbeste jarraitzaile. Izugarritzko kualidadeak dauzka pilotan jokatzeko baina oraindik ere ez du pilota serio hartu, batzutan erdi katxondeoan dabil eta serio hasitakoan gorakada handia joko du.

G. Berari ondo etorriko zitzaion txapelketa honetan zure moduko berekano batekin jokatzera, ala?

E. Ez dakit. Beste batzuekin ere jokatu du eta gorabehera asko izan ditu. Gaztea denez, pazientzia gutxi dauka; tantua berehala bukatzea nahi izaten du, azkarregi askotan, eta hortik etortzen zaizkio gorabeherak. Ez baldin bado tantua bi kolpetan apurtzen, ez dauka jokatzeko jarraitzeko pazientziarik.

G. Elkororen arabera, zu zeu oso ondo jokatzeko ari zara eta motibatuta eta ilusioarekin ikusten zaitu.

E. Beti bezala. Aukerak dauzkazunean beti etortzen da ilusioa. Txapelketa hasi gaizki egin nuen eta lesio bat izan ondoren moral aldetik ere nahiko baju nengoen. Baina poliki-poliki lesio hori gainditu dut eta gero eta gustorago jokatu dut.

G. Domekako finalerako, zelako materiala komeni zaizue zuen jokoa egiteko?

E. Aitorri eta Olaizolari pilota bi-ziak, arinak eta bote handikoak komeni zaizkie eta guk nahiago ditugu pisutsuagoak eta motelagoak, mugitzeko

zailagoak diren pilotak. Bestela Olaizolak eta Elkorok oso errez jokatzeko dute pilota biziakin.

G. Zer nolako garrantzia dauka zuretzat txapela irabazteak?

E. Gutxi. Nik nahiago dut beste bi urtetan azpitxapeldun geratzea domekan irabaztea baino. Horrek esan nahi du hor goian jarraitzen duzula, maila onean. Palmaresean agertzeak ez dit ardura. Hemen egunekoa bizi dugu eta pasatutakoak ez du ezer balio.

Gure lana ez da betiko lan bat eta guretako inportanteena urte asko hor goian egotea da. Txapelak etortzen badira hobeto baina tristea da txapel bat irabazi eta hurrengo urtean erretiratu behar izatea.

G. Bi txapelketa ezberdin egotean, txapelketa debalutua izan da aurtengo?

E. Niretako sekula ez dute inportantzia handiegirik; torneoa jokatzeko zabilzanean irabaztea nahi izaten duzu baina inportanteena hor aurrean ibiltzea da.

G. Noiz arte jarraituko duzu jokatzeko?



"Nik nahiago dut beste bi urtetan azpitxapeldun geratzea domekan irabaztea baino. Horrek esan nahi du hor jarraitzen duzula, maila onean eta hori da inportanteena niretzat"



E. Gu beti egoten gara nagusi batzuen menpe eta hemendik lau urtera kontratua amaitu bitartean behintzat jokatzen jarraitzeko asmoa daukat. Dena den, gauza asko gertatu daitezke eta adin honetan lesioak errekuperatzea gero eta zailagoa da. Baina lesioek errespetatzen banaute 41 urterekin bukatuko zait orain daukadan kontratua.

G. Asperen sorrera pilotarien onerako izan da baina txapelketa bateraturik antolatzea ez da lortu.

E. Pilotarion baldintzak askoz hobek dira orain. Lehengoak berak nahi zuena bakarrik egiten zuen eta oso gaizki portatu ziren pilotariekin eta jendearekin. Orain, bi enpresa egotean, aukera gehiago dago eta denentzako hobe izan dela esango nuke.

Bestalde, federazioek eta enpresek lana serio egingo balute ziur lortuko litzatekeela txapelketa bateratua antolatzeari baina interes asko dago tartean eta federazio bakoitzak alde batetik jo du. Borroka handia dago eta nik uste dut errua ez dela enpresena ez inorena. Jende asko dago pilotaren inguruan eta inork ez du nahi gaurko egoera konpontzerik.

Ni behintzat gustora nago jokatutako txapelketarekin eta berdin dit ofizialtasuna duen ala ez. Pilota beste ofizio baten moduan ikusten dut eta ez dut burua apurtzen beste bat baino gehiago izateko; nire lana mantendu eta hor postutxo bat izatearekin konformatzen naiz.

G. Profesionaletan zabilzanetik zein izan da zure lorpenik handiena?

E. Ilusio gehien egiten duena debutatzen dela uste dut. Fetxa ez dut gogoratzen baina Bergaran debutatu nuen, Erostarbarekin bikotea osatuz. Ez naiz

akordatzen zeintzuk ziren gure arerioak orduan. Parte hartu nuen lehendabiziko txapelketa ere gogoan daukat.

G. Banakako txapelketan bi aldiz parte hartu duzu, 1990ean eta 93an, baina ezin izan duzu zure maila erakutsi. Arantza hori hor daukazu oraindik?

E. Ez. Bi saiakera horiek egin nituenean gauzak gaizki ateratzen zitzaizkidan eta ez daukat banakako txapelketa berriz jokatzeke asmorik. Ez zait gustatzen banaka jokatzea eta lehen esan bezala nahiago dut frankil ibili eta bikoteka jokatu. Irabazteko aukera izanez gero bai baina bestela niretako ez du merezi hor jokatzeak. Enpresa berrira joan aurretik ere ados jarri ginen kontu horrekin eta gauzak argi geratu ziren.

G. Domekako finalera bueltatuz, prestaketa berezirik egingo duzu domekako finalerako?

E. Ez, gehienbat alderdi fisikoa lantzen da aurretiko egunetan eta material hautaketa egunean entrenamendu saio bat izaten dugu. Partidu eguna hurbildu ahala suabeago entrenatzen dut, ezer berezirik ez.

G. Orain arte zuen gimnasioa izan dena itxita dagoenetik, Agorrosinen entrenatzen ikusi zaitugu.

E. Bai, pisinetan nabil eta egia esateko Bergaran entrenatzeko baldintzak desastre hutsa dira. Ez dago makina egokirik pisinetako gimnasioan eta piskat serio entrenatu nahi baduzu heririk kanpo joan behar zara, Agorrosingo pista ere izugarri txarra delako. Inguruko herrietako kirol instalakuntzak ezagutzen ditut eta Bergara izango da mailarik eskasena duena, askogatik gainera.

Entrenatu nire kontura egiten dut. 18 urte daramatzat profesionaletan jokatzen eta esperientzia handia daukat. Pilota ofizioa da eta ez da dena fisikoa. Fisikoki piskat ondo egonez gero ...

G. Bukatzeko, pronostiko bat domekarako?

E. Emtatza berdin zait. Irabaztea gustatuko litzaidake. **B**



1993an, Jokin Etxanizekin, binakako txapelketa lortu zuen, Bergaran jokatutako finalean Urionaguena eta Galarzari irabazi ondoren (goiko argazkian).

1995ean, Unanurekin bikotea osatuz, 22 eta 17ko emaitzarekin galdu zuen Zezeagak Retegi II.a eta Errandonearen aurka (ezkerrean).

Patxi Eugirekin ere azpitxapeldun geratu zen Zezeaga.



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:30: Amilotx -La Juve
10:30: HHH-Komando Piperrak
11:30: Agirrebeña-Jakina PT
12:30: Artusamak-Xurruapak
16:00: Irubide Jatetxea-Ari Ari
17:00: Urrutxurtu-Moskis

HHH
Jakina PT
Xurruapak
Agirrebeña
Urrutxurtu
Ari Ari

ZAPATUAN KANPOAN

11:30: Ezinleike-Fac
12:30: Ion autoak Mo(ko)lotov
16:00: Bayer-Sirimiri Eri
17:00: Usoa-Arbe Kiroлак

Ion Autoak
Ezinleike
Usoa
Bayer

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Matxakategi-Etengabe
16:00: Errotagain-Bildurbarek
17:00: Mongatxurak-A Ze Flaxa
18:00: Bar Canalejas-OH Zerezos
19:00: Pagomendi-Shaktale
20:00: Tom Cat Argandolas-Guadalest

Patatus
Mongatx.
OH Zerezos
Shaktale
Tom Cat
Pagomendi

DOMEKAN KANPOAN

09:30: Uve Bikoitz-Txipiron
10:30: Patatus-SLP
11:30: Pinturas Bergara-Buya
12:30: Agiñaspi-Amozkibar


SLP
P. Bergara
Agiñaspi
P. Bergara

argi!

Agirrebeña hiru puntu gutxiago

Joan zen jardunaldian, Agirrebeña jatetxea taldea ez zen Etengaberen kontrako partidua jokatzera agertu eta beraz, Antolaketa Batzordeak hiru puntu kendu dizkio. Une honetan, Agirrebeña taldeak zortzi puntu ditu eta sailkapenean zazpigarren dago.

jokoz kanpo



TOÑO RETES
Txipiron

G. Nola joan dira bigarren itzuliko partiduetan?

E. Gogo handiz jokatu dugu baina maila handiko taldeak daude eta ez dugu emaitza onik lortu. Maila baxuago batean gustorago eta lasaiago jokatuko genuke.

G. Zein izan da orain arteko talde gogorrena?

E. Asko dira maila ona dutenak. Oso gustora jokatzen dugun partidua Usoaren aurkakoa da. Pareko maila dugu eta oso partidua polita izaten da.

G. Zein postutan jokatzen duzu?

E. Atzean eta behar denean erdialdean ere aritzen naiz.

G. Noiztik txapelketan?

E. Taldea, txapelketa hasi zenetik dago. Ni neu beranduxeago hasi nintzen.

G. Txapelketako talde beteranoena zarete.

E. Bai.

G. Txapelketako jokalaririk bat?


E. Jokalaririk oso onak daude. Gero eta gehiago gainera. Dena dela, gure taldeko Xabier Olabarriak nola jokatzen duen oso gustoko dut. Txapelketako jokalaririk beteranoena da eta estilo eta elegantzia handia du jokatzeke orduan.

gora eta behera



Gol zaparrada

La Juvek, azkenengo postuan izanda, 10 gol sartu zituen aurretik zihuan Pinturas Bergarari. FACek bestalde, 9 gol sartu zituen Uve Bikoitzaren kontrako partiduan. Ezinleike ere fin ibili zen azken partiduan, lehen postuan zegoen Bayer 6 gol egitea lortu baitzuen.



Amilotx eta Bildurbarek

Azkenengo jardunaldietan Amilotx taldeak ezin izan du sailkapenean aurrera egin eta poliki poliki atzean gelditzen joan da azken postura iritsi arte. Bestalde, Bildurbarek taldeak ez zuen A Ze Flaxa taldeari irabazterik izan azken hauek jokalaririk bat gutxiago izanda ere.

emaitzak

Patatus-Amilotx	2-1
Bayer-Ezinleike	2-6
Guadalest-Usoa	4-4
Etengabe-Agirrebeña Jatetxea	3-0
Pinturas Bergara-La Juve	5-10
Txipiron-Tom Cat Argandolas	2-4
A Ze Flaxa Etxagi-Bildurbarek Opel/Lam	3-4
Xurruapak-Sirimiri Eri	3-1
Fac-Uve Bikoitz	6-4
Arbe Kiroлак-Artusamak	3-3
Igandekoak-Amozkibar	4-4
Jakina Patxaran Team-Irubide Jatetxea	1-2
Ari Ari-Urrutxurtu	1-2
Agiñaspi-SLP	1-4
Moskis-Ufala	4-2

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	34	16
2. Errotagain	29	15
3. A Ze Flaxa Etxagi	29	15
4. Pagomendi	24	16
5. Ortz	23	15
6. Bar Canalejas	20	16
7. Mongatxurak	17	15
8. Jauja OH Zerezos	13	16
9. Shaktale	13	16
10. Bildurbarek Opel/Lam	12	15

2. maila

	P	J
1. FAC	21	9
2. Bayer	19	8
3. Xurruapak	17	9
4. Artusamak	15	8
5. Arbe Kiroлак	15	9
6. Ezinleike	12	9
7. Sirimiri Eri	11	8
8. Tom Cat Argandolas	11	9
9. Guadalest	7	9
10. Uve Bikoitz	4	7
11. Usoa	4	9
12. Txipiron	2	8

3. maila

	P	J
1. Urrutxurtu	20	8
2. Moskis	19	8
3. Ufala	16	8
4. Irubide Jatetxea	16	8
5. Ari Ari	13	8
6. Jakina Patxaran Team	13	8
7. Agirrebeña Jatetxea	8	8
8. Etengabe	6	8
9. Komando Piperrak	5	8
10. Matxakategi	4	7
11. HHH	3	8

4. maila

	P	J
1. Amozkibar	17	8
2. Mo(ko)lotov	15	8
3. Agiñaspi	13	8
4. Patatus	12	8
5. SLP	12	8
6. Buya	9	8
7. Ion Autoak	8	8
8. Pinturas Bergara	8	8
9. La Juve	8	8
10. Igandekoak	7	8
11. Amilotx	6	8

kronikak


**Futbola
Igoera
faseko
tontorrean**

BKEko kadete mailakoak lan bikaina egiten ari dira. Joan zen astean lehen mailako kadeteak aipatu bagenituen ere, oraingoan bigarren mailakoak izan dira nagusi joan zen asteburuan jokatu zuten partidua dela eta. Azken hauek 4-1 irabazi zuten Marino taldearen kontra.

Lehen zatian, Igor Lete bergararrak hiru gol egin zituen eta Arkaitz Beak markagailua lau golez utzi zuen atsedendaldia heldu baino lehen. Fernando Oregiren mutilak partidu bikaina egin zuten igande goizean. Bergararrak igoera fasea jokatzen ari dira eta hasieran petral ibili baziren ere, une honetan 2. eta 3. postuen artean daude.


**Eskubaloia
Seniorra
4. postuan
geratuko da**

Liga amaitzeko partidu bakar baten faltan daudela, Lijoren mutilak laugarren postua eskuratu dute. Azken partidua asteburuan jokatuko dute Elgoibarren kontra baina markagailuak ez du eraginik izango sailkapen orokorrean, bosgarren dagoen Elgoibarreko taldearekin duten aldea handia baita.

Joan zen asteburuan, Iraundi Bergarak, Urnieta- ren kontrako partidua berdindu egin zuen 18-18. Lehendabiziko zatia erreza izan zen bergararentzat. Bigarrenean berriz, gauzak lasaiegi hartu eta ez zuten gol abantailarik lortzerik izan. Liga amaitu bezain laster Lijorenak Kopa jokatzeari ekingo diote.


**Saskibaloia
Garaipenak
ihes egin
zion Bolsosi**

Bolsos Bergarak, galdu egin zuen Azpeitiaren kontrako partidua 79-70. Bi taldeek saskiratze kopuru berdina lortu zituzten hasieran. Bigarren zatian bukatu berriz, azpeitiarrak alde hartu eta poliki poliki aurretik jartzen joan ziren partidua irabazi arte.

Begararrek ez zuten aukera aprobetxatzen jakin, aurreko partiduetan erakutsitako jokoa hobetu bazuten ere. Bergarakoak igoera fasea jokatzen ari dira eta oraindik zazpi partidu gelditzen bazaizkie ere, sailkapena eskuratzeko lan handia egin beharko dute. Zazpi partidu hauetatik, sei irabazi beharko lituzkete. Asteburuko partidua irabaziz hasi beharko dira.

GORKA FERNANDEZ/ Piraguita

"Teknika koordinatzea zaila da"

Duela bi asteburu, Bidasoa ibaiko San Migel inguruan jokatu zen Gipuzkoako slalom txapelketan, 3. saria eskuratu zuen junior mailan. **Beti Busti elkarteko kidea da eta 5 urte daramatza hainbat ibaitan gora eta behera. Asteburuan, Frantziako Orthezera abiatuko da Euskadiko txapelketako kopa jokatzena.**

G. Hirugarren postua eskuratzeko espero zenuen?

E. Aurreko egunak gripeak jota igaro nituen eta ez nuen horrela ibiltzea espero.

G. Zenbat denbora izaten zarete uretan?

E. Uretan pare bat ordu baina

entrenatzen ordu t'erdi inguru. Egunero entrenatzen dugu. Astean zehar besteak beste, ariketa fisikoak egiten ditugu gorputza lantzeko eta asteburuetan kanpora joaten gara, ibaitan zehar ibiltzera. Uda partean, entrenatzailea eta beste lau lagunek, 7.000 km egin genituen Europan zehar.

G. Zenbat modalitate ditu piraguismoak?

E. Ur bizietan, slalom eta jaitsierak izaten dira eta ur mantsuetan pista eta trabesia.

G. Entrenatzeko ibairik egokiena?

E. Katalunia eta Frantziako ibaiak. Toki haietan bereziki piraguan ibiltzeko prestatuta izaten dira. Errobi edo Nogera Pa-

yaresa esaterako ondo gertatuta daude.

G. Zuk zer duzu nahiago?

E. Slalama. Ez da jaitsieretako abiadura lortzen baina teknika landu beharra dago, mugimendu guztiak ondo pentsatu behar dira eta hau koordinatzeak effortzu handia eskatzen du.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Intxaurren

Preferente maila

Zapatua. 16:30. Agorrosin

Bergara-Mundaiz

Lehen mailako jubenilak

Zapatua. 18:30. Ipintza

SASKIBALOIA

Bergara-

Padura (Arrigorriaga)

Senior maila

Zapatua. 19:00. Kiroldegia

ESKUBALOIA

Bergara-Urnieta

Jubenil mailako neska

Domeka. 11:00. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-Aretxabaleta

Bigarren mailako kadeteak

Bergara-Arrasate

Lehen mailako kadeteak

Bergara II-Altzatarrak

Senior maila

Eguakitz (partidu guztiak)

19:30. Udal Pilotalekua

ARETO FUTBOLA

Bergarako Lagunak-

Aloña Mendi

Mutilak

Domeka. 12:30. Kiroldegia

Gimnasia erritmikoko Ariznoa taldea martxan da dagoeneko

Ane Miren Fernandez eta Jaione Igartua dira gimnastak

Ariznoakoek, estatu mailako hainbat txapelketatan domina ugari eskuratu zituzten iaz eta aurten, taldean aldaketa berriak izan badira ere txapelketa garrantzitsuenetan parte hartzeko prest agertu dira. Guzti honen inguruan, Helena Herreros Bergarako entrenatzailearekin eta Mertxe Olabarria Ariznoa Elkarteko ordezkarietako batekin hitz egin dugu.

Iaz, Ariznoa taldea sei gimnastek osatzen zuten. Helena Herrerosen zuzentzen zuen taldean, Ane Miren Fernandez izan zen Euskal Herri mailan eta baita estatu mailan ere nabarmendu zen gimnasta bergararra. Aurten, Bergarako Ariznoa taldea Jaione Igartua eta Ane Miren Fernandezek berak ordezkatu dute.

Dena dela, Ane Miren eta Jaionek ez dute joan zen urteko entrenatzaile bera izango. Bergara ordezkatu arren, Eibarko Ipurua Elkartearen eskaitza onartu eta Eibarren egingo dituzte entrenamenduak. Mertxe Olabarriak adierazi digunez, "Eibarren entrenatzeak ordutegia zabalagoa izatea eskatzen du eta baliabideak ere hobekiago dira. Ate gehiago zabaltzeko aukera ematen du Eibarko Ipurua Elkartek. Hori dela eta, neskatilen egoera kontutan hartuz eta beti ere beraien



Joan zen denboraldiko Ariznoa taldea eta Helena Herreros entrenatzailea.

"Ipurua Elkartearen babesean entrenatzeak ordutegi zabala eta baliabide hobek izatea dakar"

MERTXE OLABARRIA

etorkizunerako onena zer den kontutan izanez, Ariznoak, elkarte bezala, erabaki hori hartu zuen".

NARBAEZ ETA LASA IPURUARA

Bestalde, joan zen urtean Ariznoa elkartean aritu ziren Aintzane Narbaez eta Leire Lasa Ariznoa utzi eta Ipurua Elkartearekin arituko dira txapelketetan. Kasu hone-

tan, entrenamendu nagusiak Eibarren izango diren arren, bergararrak astean behin Helena Herrerosen aginduetara egongo dira. Helena hamar urte izan da gimnasta hauek entrenatzen eta aurten bere lana eskolarreri zuzenduta egongo da batik bat. "Aurten eskolarekin jardungo dut lanean Leire eta Aintzane astean behin entrenatu arren. Ariznoa taldeko entrenatzailea izaten jarraituko dut eta jokatuko diren txapelketetan Ariznoa Elkarteko ordezkari moduan egongo naiz baina, esan bezala, nagusiki nerea lana, gaztetxoei begira egongo da".

Bergara eta Antzuola artean eskola kiroleko gazte asko ari dira gimnasia erritmikoan eta guzti hauen arduraduna Helena da. Berak gaineratu digunez "Ipurua izen handiko elkarteak da gimnasia erritmikoan eta Leire eta Aintzane probetxua ateratzeko aukera izango dute. Ane Mirenen kasuan ezberdina da. Berez, gimnasta garrantzitsua da eta gimnasiako jendeak jandak ezagutzen du".

Gimnasia erritmikoko federatu izateko aukera eskasa dela kontutan izanik, Ariznoaren etorkizuna, aurten arituko direnak denboraldi amaieran erabakiko dutenaren menpe dago. Federatu berriak sortzeko gero eta aldapa zailagoak jartzen dituzte eta federatu gabe, Ariznoak Elkartek ez du jarraituko. **B**

Estatuko areto futboleko txapelketa Bergaran

BERRIGARAN aurreratu genuen bezala, Espainiako II. Areto Futboleko Autonomi arteko txapelketa Bergaran eta Oñatin jokatu da. Bergaran, Labegaraitan jokatuko dira apirilaren 30a eta maiatzaren lehen bitartean. Bergarara etorriko diren taldeak, Gaztela Mantxa, Gaztela Leon, Andaluzia eta Aragoi izango dira. Lehen partidua, gizonezkoen senior mailakoa, Gaztela Mantxa eta Andaluziak jokatu dute apirilaren 30ean 18:00etan.

Bergaran jokatu diren partidua hauek dira:

SENIOR MUTILAK:

- *Gaztela Mantxa-Andaluzia*, apirilaren 30ean, 18:00etan
- *Andaluzia-Gaztela Leon*, maiatzaren lehen, 12:00etan

SENIOR NESKAK:

- Partidua, apirilaren 30ean eta maiatzaren lehen, 18:00etan

JUBENIL MUTILAK

- *Aragoi-Gaztela Leon*, apirilaren 30ean, 19:30etan
- Beste partidua bat maiatzaren lehen, 19:30etan.

Haurren Pilota Txapelketako emaitzak

Joan zen asteko eguakitzean Bergarako pilotari promesek Haurren Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten. Guztira lau ziren iragarrita zeuden finalak baina hiru besterik ez ziren jokatu. Final hauetako irabazleak, Jon Larrañaga, Ibon Berraondo eta Aitor Arregi izan ziren. Argazkian, finaltako pilotariak eta entrenatzaileak ikus ditzakegu.



ESKOLA KIROLA Karteldegia

SASKIBALOA

ALEBIN MAILAKO NESKAK
10:00: Antzuola-Arrasate
12:00: Finala
 ALEBIN MAILAKO MUTILAK
10:00: Oñati-M. Lagundia B
12:00: Arrasate-M. Lagundia B
Guztiak zapatuan, Musakolako Kiroldegian (Arrasate)
 INFANTIL MAILAKO MUTILAK
11:00: Aranzadi-Rompehuesos
Zapatuan, M. Lagundian

ARETO FUTBOLA


KADETE MAILAKO MUTILAK
11:00: La Salle D-M. Lagundia
Zapatua, La Sallen (Eibar)

INTEGRAZIOZKO JARDUNALDIAK

Kirolak:
 Boccia, saskibaloia gurpildun aukietan, boleia eta goal ball-a
 BENJAMINAK
09:30-11:30
 ALEBINAK
11:30-13:30
Zapatua, Martinez Irala Ikastolan

Nesken futbito txapelketa hasteko zain

Nesken futbito txapelketaren baitan joan zen astebururako iragarrita zeuden partidua bertan behera utzi zituzten eguraldia zela eta. Partidu guztiak asteburu honetan jokatu dira. Potzu Ta Zapaburuak, Nifits taldearen kontra eta Gu Geu, Tetxiren kontra arituko dira.



Irizar 2
 ☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

B O L U

G I M N A S I O A

Martxoaren 29rako zabalik!

DETAILE TXIKI BATZUK BESTERIK EZ DIRA FALTA!



Aldibi autoak, S.A.
 Zigarrola 1 • ARRASATE
 Tf. 943 71 20 02
 Faxe: 943 79 65 65

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 21 63.

Pisu amueblatua Zubiaurren. 943 76 48 05.

Bolun. 943 76 01 80.

Martoko. 943 76 55 86.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

S. Lorentzo. 943 76 48 39.

Masterreka. 943 76 17 49.

Elorregi. 943 76 07 47.

Antzuola. 943 76 19 21.

Osintxu. 943 76 49 74.

Pisua salgai Zumarragan. 943 76 23 84.

ERRENTAN EMATEKO

Apartamendua Zarautzen (abuztuan ez). Deitu 943 76 42 05 telefonora.

Laredo-plaian, Aste Santuan. Piszinarekin. 943 76 13 86.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alo-

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 / 76 37 80 (gauez).

4. LANA

ESKAITZAK

Emakume batek etxeko lanak egin edota negoziak zainduko lituzke. 943 76 46 48.

Etxeko lanak edo haurren zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Aste).

Neskak, goizez, haurren zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldean lan egingo nuke. 943 76 52 39 (Karmelet).

Erizain titulatuak gainak, edadetuak edo haurren zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Jaiegunetan eta aste-bukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak etxeko edo sukaldari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neska, goizez, haurren zaindu

kairuan. 943 85 36 99.

Bizpahiru hilabeterako pisua hartuko genuke. Deitu 617 90 78 17 telefonora.

Pisua hartuko genuke alokairuan. 943 76 26 82 / 943 76 57 34.

ETXE KONPARTITUAK

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran. 943 76 71 93.

Gela nahi nuke pisu konpartituan. 943 27 77 80.

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Artza-mendin. 943 76 06 25.

Garajea salgai Ibargarain. 943 15 15 81.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Matzerekan. 945 23 48 07.

Garajea salgai Aranerrek. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 23 53.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lokala S. Pedro kalean. 943 76 10 39.

Lau gelako lokala Koldo Eleizalden, bulegotarako. 943 76 58 91.

Gozogintzan aintzindari.

Oporretarako ureztatze sistema automatikoa

Informazio gehiagorako deitu 943 76 31 52ra!

COMERCIAL BRUNET
Ozaeta 11, BERGARA.

ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkaziak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

edo etxeko lanak egin-
go lituzke. 943 76 72 31.

ESKAERAK

Pertsona edadetu bat
zaindu eta etxeko lane-
tarako emakumea be-
har da. 943 76 39 61.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

OHO eta BBB klaseak.
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.
943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzan diploma-
tuak klaseak ematen
ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Ingenieritzan diploma-
tuak OHO eta BBBko
klaseak ematen ditu.
943 76 70 44.

Majisteritzako ikasleak
OHOk klaseak ematen
ditu. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Yamaha 250 cc. moto-
ra, beltza eta kroma-
tua. 943 76 28 92.

Citroen BX egoera one-

an. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI kotxea salgai.
6 urte, egoera onean.
608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Ai-
re egokitua. Kilometro
gubxiarekin. 943 76 23 12.

Honda CR motorra sal-
gai. 250 cc. 9 urte.
943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea
(SS-W) prezio onean
salgai. 943 76 63 29.

Renault Super5 (SS-AB)
kotxea egoera onean
salgai. 943 79 68 75.

Honda NSR 80 motorra
salgai. 943 76 31 52.

7. ANIMALIAK

SALDU

Ardi txakurkumeak
(arrak eta emeak).
943 81 56 20.

Boxer txakurkumeak
salgai. 943 76 40 73.

Hamsterkume indioak
salgai. 943 76 43 70.

BESTELAKOAK

Bi artzai txakurkume
opari. 943 76 35 58.

8. DENETARIK

SALDU

Opera eta kamara musi-
ka CD bildumak salgai.
943 76 58 05 (Juanje).

Altzariak salgai, berri-
berriak. 619 80 26 06.

Bi oheko gazte logela.
943 78 25 85.

Errepideko bizikleta (8-
12 urtekoentzat).
943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai.
943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje
(marineroa eta neskati-
larena). 943 76 14 70.

Jaunartzeko trajea sal-
gai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera one-
an salgai. 943 76 13 53.

Espasa Calpe hiztegi-
entziklopedikoa
(27 tomo). 943 77 05 95
(Jacinto).

Kalendadore termo berri
bat saldu nahi nuke.
943 76 30 83 (Juli).

EROSI

Singleak eta LPak eros-
ten ditut. 943 52 65 77.

EMAN

Furgonetarako goiko
parrila oparitzen dut.
Deitu 943 76 58 37
telefonora.

GALDU

Bi belarritako desberdin
galdu ditut, zilarrezko-
ak, Toki Eder eta Bolu
artean. 943 76 52 39.

Giltza batzuk galdu dira,
Festinak giltzakoare-
kin. 943 76 00 56.

AURKITU

Ezkontza eratzuna topa-
tu dut Patxi-Amaia ize-
nekin. 943 76 48 10.

Mugertza eta Ipar Cen-
ter artean dirua eta ob-
jetu pertsonalak aurkitu
nituen. 943 76 12 86.

BESTELAKOAK

Aterkinak konpontzen
dituen norbaiten berri
izan nahi nuke, aterkina
konpontzeko.
943 76 52 39 (Gema).

Egunero, 14:30etan, Zu-
marragara kotxez joa-
ten den norbaiten berri
izan nahi nuke.
943 76 17 62 (Miren).



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

**INFORMATIKA
TEKNIKARIA**
Tolosa. 16097/3

**ZINPEKO
ZAINZAILAK, 2**
Donostia. 17333/4

TABERNARIA
Bilbo. 16364/2

**INJINERU
TEKNIKOA**
Bilbo. 17377/2

**SUKALDARI
LAGUNTZAILEA**
Bilbo. 16365/2

**KIROL
MEDIKUNTZAN
LIZENTZIATUA**
Ibaizabal. 17501/4

GALDARAGILAK
Bilbo. 16643/5

TORNEROA
Mungia. 17505/3

TROKELGILEA
Zumarraga. 16940/4

**ELEKTRIZITATE
MEKANIKARIA**
Bilbo. 17019/2

**MATEMATIKA-
KIMIKA IRAKASLEA**
Ibaizabal. 17564/0

**INFORMATIKA
IRAKASLEA**
Bilbo. 17054/3

**ELEKTRIZISTA
LAGUNTZAILEA**
Deba GARAIA. 15495/2

**PROGRAMATZAILEA
IRAKASLEA**
Deba Garaia. 17073/5

**INFORMATIKA
IRAKASLEA**
Bilbo. 16318/4

**Lan eskaintza hauetakoren bat
interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta
eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**TINDATEGIA
RENTERI
TINDATEGIA**

*Ikuzketa eta
lehorreko garbiketa*

Kalitate gorena garbiketa
zein plantxa lanetan
Andregaiantzako jantziak,
jaunartzeak eta abar
Udaberri-udako zure erropa
gertu, zerbitzu onenarekin

IKERLEKU 4, behea
943 76 19 68

**GERIATRIA eta KLINIKA-LAGUNTZAILE
tituludun langileak behar dira**

Lanean aritu izana kontuan hartuko da

Interesatuok, bidali curriculum vitae
helbide honetara:


Atsedan. 23 posta kutxa. 20500 Arrasate

**BEHARGINA
eta SUKALDE-
LAGUNTZAILEA
behar dira
jatetxe batean
Tf. 619 88 53 33**

**CLAYMOND C.B.k
emakumezkoak
behar ditu lanerako**

Elkarrizketarako
ordua ipintzeko
deitu 943 76 72 65
telefonora
(8:00-12:30 eta 14:30-18:30)

USOA MENDIKUTE



pintura-erakusketa

NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Aritzeta abesbatzak 20 urte betetzen ditu

Hamar presidente eta hiru zuzendari izan ditu 1979. urtean sortu zenetik

Aritzeta abesbatzak 20 urte bete ditu otsailean. Joxe Arrieta abesbatzako presidentea, Imanol Urzelai zuzendariak eta Luis Abajo Kultura zinegotziak, urtebetetzea ospatzeko antolatu dituzten ekitaldien berri eman zuten eta abesbatzaren nondik-norakoak azaldu zituzten joan zen martitzenean.

Abesbatzako presidentea adierazi zuenez, Aritzeta lehenean emanaldia 1979ko otsailean izan zen Novedades aretoan Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendari zela. Horretaz gain, urte bereko abenduan, Udal Pilotalekuan lehenean aldiz kantatu zuen, Bergarako Orfeoia-ekin eta Udal Musika Bandarekin batera.

Sorreran, 110 lagunek osatzen zuten abesbatza eta gaur egun 40 inguru dira. Abesbatzako kideek adierazi zuten, azkenaldian 14-15 urteko gazteak sartu dira abesbatzan, baina gazteak ez ei dira Aritzeta-koak nahi beste animatzen eurekin kantatzera. "Egia esan, azken urteetan Musika Eskolatik ez zaigu abeslari gazterik heldu eta ez dakigu zergatik den hori. Nire ustez, Musika Eskola herriko abesbatz guztientzako mintegi izan beharko litzateke eta une honetan Orfeoi Gaztera edo Orfeoira bakarrik doaz" esan zuen Joxe Arrietak. Honen inguruan, gazteen abesbatza bat sortzeko asmoa zutela aurreratu zuen eta, horretarako, herriko ikastetxeetako zuzendariekin harremanetan zebiltzala esan zuen. Bestalde, askok kontrakoa uste arren, Bergarako Orfeoia-ekin eta Aritzeta abesbatzaren arteko harremanak oso onak direla adierazi zuen Imanol Urzelai zuzendariak.



Joxe Arrieta Aritzeta-ko presidentea, Luis Abajo zinegotzia eta Imanol Urzelai Aritzeta-ko zuzendaria.

Aritzeta Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eta Bergarako Musika Eskolaren sortzaile-etarikoa da. Horretaz gain, Legazpi, Oñati eta Elgoibarko abesbatzekin batera, lehenean Topaketak antolatu zituen 1980ko maiatzean eta 1988an ere antolatu zituen bailara mailako Topaketak Bergaran. Bestalde, 1992an Gipuzkoa mailako haur abesbatzen Toparak antolatu zituen eta iaiz Euskal Herria Kantuz antolatu zuen.

Aritzeta abesbatzak hainbat elkartruke egin ditu nazioarte eta estatu mailako beste abesbatza batzuekin. Bestalde, Holandan eta Belgikan kantatu du; Errenteriako Musikasten parte hartu zuen Eustakio Azkarate bergararrari egin zitzaion omenaldian; Donostiako udaletxeko Pleno Aretoan eta Victoria Eugenia antzokian abestu du, "eta Bergarako auzo gehienetan ere abestu du" esan zuten. **B**

1999. urterako iragarritako emanaldiak

Martxoak 13 Arrasateko Al Andalus-en
Martxoak 20 Legutian
Martxoak 27 Mariaren Lagundian
Martxoak 28 Martuteneko espetxean
Apirilak 18 Narbaxan (Araba)
Maiatzak 21 Udal Pilotalekuan "Titanic"
Ekainak 5 Oionen (Araba)
Ekainak 12 Eibarren
Ekainak 20 Osintxun

Uztailak 17 Aritzeta-ko buruzko erakusketa Kultur Etxean
Uztailak 18 Santa Marinaran
Irailak 18 Udal Pilotalekuan "Stabat Mater" Orfeoia-ekin batera
Azaroak 27 Barrian (Araban)
Azaroak 28 Narbaxan
Abenduak 18 . . . Gabonetako kontzertuan

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

BERGARA EZAGUTZEN LEHIAKETA

Gaur eta datorren eguenean jokatuko dira final erdiak eta finala martxoaren 26an

Errastisklas, Hik Galdeu, Petu Petuan eta Eli sailkatu dira final erdiatarako. Eli eta Hik Galdeu nor baino nor arituko dira gaur.

Joan zen eguakitzeko jardunaldian Errastisklas erraz nagusitu zen Jotapurtu taldearen aurrean. Errastisklas taldekoei nabaritzen zaie ondo prestatuak eta gaiak ondo landuta aurkeztu direla txapelketara. Lehen eta bigarren fasean erabatekoa izan da erakutsitako nagusitasuna. Une honetan eurak dira faborito nagusiak, baina ikusi beharko da final erdietan nola moldatzen diren.

Joan zen eguakitzeko jardunaldiari dagokionez, galderetan Errastisklas taldeak 188 puntu lortu zituen eta Jotapurtuk 153. Proba grafikoan Errastisklas-ek 30 puntu eta Jotapurtuk 15 eta kanpoko jokuan Errastisklasek 20 eta Jotapurtuk bate-re ez. Amaieran, Errastisklas 238 punturekin geratu zen eta Jotapurtu 168 punturekin. Orain arte ikusitakoaren arabera, maparen jokuan despistatu samar dabilta talde guztiak, oso gu-

txitan asmatu baitute. Antzaenez, zaila egiten zaie emandako herriko kale edo auzo bat mapan kokatzea. Arlo hori landu egin beharko dute, txapelketa azken fasean sartuko baita gaur eta puntu guztiak izan daitezke beharrezkoak finalera heltzeko.

SAILKAPEN NAGUSIA

1. Errastisklas 238 puntu
2. Hik Galdeu 205 puntu
3. Petu Petuan 205 puntu
4. Eli 201 puntu
5. Jotapurtu 168 puntu
6. Gotxus 166 puntu

FINAL ERDIETAKO LEHEN JARDUNALDIA

Eli (DBH 4, Aranzadi ikastola)
Hik Galdeu (DBH 4, Aranzadi ikastola)



Epai-mahaikoek lana izango dute, txapelketa azkenera heltzen ari da eta.

erreseinak



Joxe Belmonte
Fernandez de Larrinoa
Amodio zoroak
Ipuin bilduma

Joxe Belmonte de Larrinoa ipuin-gintza landu du batik bat eta bere kontakizunek Euskal Herriko saririk garrantzitsuenak irabazi dituzte. Oraingoan, lehenagoko ipuinei berri batzuk erantsi eta gai jakin bati buruzko bilduma osatu du: "Amodio zoroak". Sentimenik bortitz eta kontrajarrienak pizten dizkigu amodioak eta horregatik bihurtu da gai hau literaturako ohiko mintzagai. Sexua modu patologikoan bizi dutenak, ze- loen neurosian dabilzanak, usteen eta errealtatearen arteko amildegian eroritakoak..., agertzen zaizkigu liburuan, beti ere umoristaren ironia argia erabilita.

- Elkarlanean. 138 orr. 1.450 PTA



Bergarako Orfeoia
75. urteurrena
Polifonia

Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrena ospatzeko Gabon inguruan argitaratutako diskoan, bereziki Orfeoiarentzat konposatutako obrak edota okasiorako moldatutakoak biltzen dira. Guztira, 17 pieza jaso dira ia 65 minutuko CDan. Grabazioak, 1997ko uztailetik 1998ko azarora bitartean egindakoak dira eta Orfeoiaren gain, Opus III Percussion Ensemblek, Bergarako Orkestra Sinfonikoko musikari batzuk eta Orfeoi Gazteak ere hartu dute parte.

- Bergarako Orfeoia. 2.000 PTA

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Eguzkitik babesteko tresna. 2. Sudurretako jarioak. Zeuk. 3. Fruitu-mota. Saila. 4. Karta-jokoa. Uranioa. 5. H₂O. Janari ongailua. 6. Gizon izena. Bokala. Suari dario. 7. Bizkaiko herria. Pl., gerra-tresna. 8. Azkenekoa. Ez ahal. Kontsonante bi-koitza. 9. Arabiako estatua. Ibai giputza. 10. Ogi, hitz elkar-ketan. Nukleoari dagokiona.

Goitik behera

1. Emakume. 2. Nahia. Kanpo. 3. Izanak. Interjekzioa. 4. Ohorezko hitz ematea. Zoru gainean eta horizontalean jarri. 5. Errepublikatuz, gorotza. Bi pisu bereizten dituen egitura. 6. Erregai-mota. Kontsonante errepublikua. Potasioa. 7. Tona. Estalkiak. Alkoholen bukaeran. 8. Barazki mota. 1. Kiskali. 9. Kulunkatzen dena. 10. Betekada. Euskaraz eta kitto! Ez eme.

Soluzioa

10. Oka AEK. Ar. 9. Kulunkaria. 7. Tapak. OI. 8. Aza l. Ere. 5. Ka Solairu. 6. Ikatz. Nn. K. 2. Uinak. Eri. 4. Zina. Etzan. 1. Emakume. 2. Guraria. At. Goitik behera. 3. Kater. Oria. 10. OI. Nukleoa. 8. Z. Ezin. Rr. 6. Mikel. A. Ke. 3. Aian. Aiala. 4. Kanasta. U. 1. Eguzkitako. 2. Mukiak. Zuk. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereibar



Zein jauregiren aurrealdean dago ezkerreko iturria eta zein elkarteren bola-tokiaren ondoan dago eskumako iturria?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Erreki** jeretegian izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Karmen Aretxagaren**tzat izan da. Iraho jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Karmeni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Madalena plaza** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

ERREKI
ERRETEGI

Fraiskozuri 3. 943 76 38 51

Cantarcillo (Salamanca) herrikoa jaiotzez, 19 urte zituela Bergarara etorri eta bertan ezkondu zen. Bi seme-alaba ditu eta San Joxepe elkartean aski ezaguna da. Jubilatuen elkarteko abesbatzan ari da, abestea izugarri gustatzen zaiolarik.

Teo Delgado

Noiztik abesteko zaletasuna?

Bizi guztian gustatu izan zait abestea.

Zela sartu zinen abesbatzan?

Lagun batek komentatu eta biak hasi ginen. Giro ezinhobea dago.

Entsaiuak ala emanaldiak?

Entsaiuetara ilusio handiz joaten naiz eta ikasitakoa erakustea ere ondo dago.

Piezarik gustokoena?

Asko: "El tirol", "Boga-boga"..., denak dira politak.

Dutxan abesten duzu?

Baita fregatzen nagoenean ere...

Zelako musika entzuten duzu etxean?

Zaratatsua ez den musika gustatzen zait: boleroak, klasikoa, kantautoreak...

Gustoko kantari bat?

Serrat, Victor Jara, Victor Manuel...

Erositako azken diskoa?

Benito Lertxundiren azkena.

Hobby bat?

Puntokruza egitea.

Jubilatuenean elkartean denbora asko ematen duzu?

Egunero joaten naiz eta domeketan gizonarekin eta beste lagun batzuekin.

Karta joko bat?

Txintxoia eta briska. Denbora pasatzeko ondo dago.

Emakumearen eguna ospatu zenuen astelehenean?

Nire erara, bai.

Zenbat ordu egiten duzu lo?

Zortzi bat. Kontzientzia trankil daukadanez, primeran lo egiten dut.

Irakurritako azken liburua?

Pertsonaia historikoen biografiak irakurtzen ari naiz.

Telebista ala irratia?

Goizez irratia eta gaeuz telebista.

Telebistako programa bat?

"Cronicas marcianas" eta "CQC".

Eta ikusi ezin duzun beste bat?

"Lo que necesitas es amor".

Animalia bat?

Katua. Lehen izan genuen eta herritik beste bat ekartzeko asmoa daukat.

Zure jaioterrira askotan joaten zara?

Maiatzetik irailera bitartean han egoten naiz.

Eguraldi pronostikoari kaso egiten diozu?

Bai, egunero.

Urtaro bat?

Uda, eguzkia gustatzen zait niri.

Loterian jokatzeko duzu?

Bai, primitivan.

200 milioi irabazita, zer?

Seme-alabei pisu bana erosi eta familiari lagundu.

Bidaia bat nora egingo zenuke?

Parisera. **B**



etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

San Miguel

barnealdean dekorazioa

Banaketa eta
dekorazio proiektuak
etxebizitza
eta merkataritza
lokaletarako


Gremioen koordinazioa



AINHUA CARAZO ITURRIAGA.
5630 elkargokidea

San Lorentzo 4. Posta kutxa 250. 20570 Bergara.
Tf. 943 76 47 90. Faxes: 943 76 01 15

Kizkur



Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



Uberako haur eskola. 1962

Sasoi batean auzo gehienetan zeuden eskola unitarioak. Orain baino haur gehiago zegoen eta etxetik gertuko eskoletara eroaten zituzten haurrak gurasoek.

Gaur egun Osintxun eta Angiozarren bakarririk daude eta Osintxukoa, gainera, aurten zabaldu dute berriz ere, urtetan itxita izan ondoren.

Aste honetako argazkian 1962. urtean Uberako eskolan zebiltzan neska-mutikoak agertzen dira. Argazkia eskola aurrean aterata dago, gaur egun Jaolatzela elkartea dagoen tokian (pilotalekua oraindik eraiki barik zegoen). Honako hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik hasita:

Atzeko ilaran: Karlos Aranzeta, Jose Luis Maortua, Mari Angeles Markiegi, Maritxu (andereñoa), Mari Asun Arana, Koro Gaztelu, Juan Martin Elexpuru, Julian Elexpuru, Rafael Olañeta, Manuel Merino eta Modesto Merino.

Aurreko ilaran: Arantzeta Elorza, Maite Aranzabal, Mertxe Gaztelu, Karmentxu Arraizgo, Jose Manuel Markiegi "Poto", Pablo Aranzeta, Jose Antonio Arraizgo, Martin Jose Arraizgo, Damaso Merino eta Jesus Mari Lazpiur.

Aurre-aurrean: Edurne Elorza, Jesus Mari Gaztelu "Pixto" eta Bittor Lamariano (bi hauek makurtuta daudenak dira).

Argazkia: Bittor Lamariano

Mujika
gozategia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Plastikozko ontziak



Latak



Tetrabrikak



...zure esku dago

"Buertaka - Buertaka Birziklatuz"

Dalozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Erantzukizun horrela, lehengai eta energia gehiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegiak ere denbora zeharago izango ditugu.

**Gutxitu hondakinak,
berriaz erabili eta birzikla
gizatu**
Guztion mesedetan
lagunduko da



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Sofa
leku



Sofa
leku



Sofa
leku



Sofa
leku

**ESKAINITZA
BEREZIAK**

Sofa
leku

**HIRU JOKU
LARRUA
OIHALA
3+2**

GRUPO

**Amuebladora
Mondragonesa**



Sofa
leku

